#159
DOAN

2022 · 04 · 06
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena

Erakusleiho bat mundura

30 URTE IGARO DIRA MAROÑOKO URTEGIA BETE ZUTENETIK

erreportajea

Maroñoko urtegia airetik. **Ruben Ladron de Gebara**

30 urte bete ditu Maroñoko urtegiak

Duela 30 urte, 1991ko azaroaren 22an, bete zuten lehendabiziko aldiz Maroñoko urtegia, Izoria ibaiko harana ur azpian utziz. Obrak Aiaraldeko paisaia ikusgarrienetako bat sortu zuen, biodibertsitate aberats baten gordeleku. Milaka dira hormigoizko dikera bertaratzen diren bisitariak, inguruko biztanleak eguneroko bizitzarekin aurrera jarraitzen duten bitartean.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Aiaraldeko txokorik ezagunenetakoa da Maroñoko urtegia. Hormigoizko egitura erraldoiak eskaintzen duen Gorobel mendilerroko ikuspegia eskualdeko erakusleiho nagusia bilakatu da. Eskualdetik kanpo ehunka dira bertako parajea ezagutzera hurbiltzen direnak. Tologorri eta Ungino mendiak islatzen dituen ur-masa hori, ordea, ez da beti hor egon; duela 30 urte Ias , Salmanton eta Izoria arroiletako urek hormigoizko horma erraldoi baten aurka jo, eta antzina Maroñoko eskolak eta errotak gordetzen zituen harana irentsi zituzten, 1991ko azaroaren 22an hain zuzen ere.

Proiektuaren hastapenak

Duela 30 urte, Maroño eta Agiñiga herrien ingurunea zeharo aldatu zen betiko, baina proiektua askoz lehenagotik zegoen mahaigainean. Arabako Foru Aldundiak 1975ean 150 litro segundoko emaria eskatu zuen Laudioko ur-horniketaren arazo larriei aurre egiteko. Espainiako Gobernuak 1978an onartu zuen eskari hori, eta administrazio arabarrak urtegi berriaren proiektua idazteari ekin zion. 1985ean onartu zen proiektua eta 1988an abiatu ziren Aiarako haran galdu hori eraldatuko zuten lanak.

Baina, zergatik Maroñon eta ez beste haranen batean? Agiñigatik datorren Ias errekak eta Salmantonetik datorrenak Babio eta Eskoritas mendien artean sortzen den Maroñoko haran estuan egiten dute bat, Izoria errekaren jaiotzan. Gorobeleko akuiferoetatik datorren ur emaria etengabea da puntu horretan eta, hain zuzen ere, Ias errekatik dator Amurriok izandako lehen ur-horniketa sarea.

Proiektuak Maroñoko herriari eragiten zion soilik, ur-maila herrigunetik behera geratzen zen eta ez zuen etxebizitzarik kaltetu eta ez zen beharrezkoa izan bizilagunik lekualdatzea. Haranaren uholdeak, baina, hainbat lursail irentsi zituen; bi errota eta II. Errepublika garaian eraikitako eskolak ere ur-azpian amaitu zuten. Arabako Diputazioak garaiko 17 milioi pezeta ordaindi zituen lur, jabetza eta bertako eraikin guztien desjabetzengatik; 120.000 euro. Lur horien galerak ez zuen inplikazio sozial edota ekonomiko handirik eragin bertako biztanleengan. Garia horretan lau ziren inguruko abeltzaintza ustiategiak, eta urtegia eraiki ostean ere berdin jarraitu zuten.

Jose Mari Aguirre Maroñoko Batzar Administratiboko alkatea da gaur egun, duela 30 urte bera zegoen postuan, ondo gogoratzen ditu desjabetzak eta 1980ko hamarkadako obrak: “Urtegia dagoen lekuan zeuden lurrak ez ziren abeltzaintzarako erabiltzen, zonalde malkartsua zen; baso txiki bat zegoen, herriko eskolak, errota bat eta bigarren errota bat zuen baserri abandonatu bat”. Maroñoko bizilagunek 15 urte lehenagotik zekiten lur horiek desagertu egingo zirela, eta bertako basoetatik ahalik eta egur gehien ateratzeko aprobetxatu zuten, herriko beste baso publikoak ustiatu aurretik.

Baina herritarren eta Diputazioaren arteko harremanak

ez ziren beti goxoak izan, Aguirrek gogoan du lur-jabetzak merke saltzeaz gain, bestelako ondasun batzuk ere desjabetu nahi zituela administrazioak: "Errotan zeuden errotarriak eraman nahi zituzten, Arabako ez dakit zer herriko parke batean jartzeko. Ez geunden hori onartzeko prest. Auzokide talde batek errotarriak hartu genituen eraman aurretik, eta eliza aurrean utzi genituen. Oraindik ere bertan jarraitzen dute ikusgai". Administrazioko inor ez zen oroitu errotarriak hartzeaz, eta gaur egun mahai funtzioa betetzen dute Maroñoko herritarrentzat.

Errotarriak ez ziren izan Jose Mari Agirrek urtegiko uretatik salabtu zuen gauza bakarra. Herbologia zalea izan da Aguirre betidanik, eta urek irentsi behar zuten basoko pago txiki bat erreskatatzea erabaki zuen: "Egurra hartzen genuen baso horretatik, eta argi neukan zuhaitz bat gutxienez salbatu behar genuela. Adaxka txiki bat aurkitu nuen, hura hartu eta etxe ondoko soro batean birlandatu nuen". 30 urteren buruan sendo hazitako zuhaitza da pago hura, eta Aguirreren etxe ondoan jarritzen du zutik, ur-azpian geratutako lurren memoria gordez.

"Egurra hartzen genuen baso horretatik, eta argi neukan zuhaitz bat gutxienez salbatu behar genuela urak estali aurretik. Adaxka txiki bat aurkitu nuen, hura hartu eta etxe ondoko soro batean birlandatu nuen"

Obrak

Zimenduen indusketek eman zioten hasiera urtegia eraikitzeko lanei 1988an. Obra zibilak 1.300 milioi pezetako kostua izan zuen guztira, gaur egungo 7,8 milioi euro. Ordura arteko teknikarik aurreratuenak erabili ziren, berrikuntza teknologikoaren aldeko apustua eginez. Hain zuzen ere, hormigoi trinkotua baliatu zuten Maroñoko urak eutsiko zituen horma altxatzeko.

Maroñoko herritarrei hainbat lan egitea egokitu zitzaien ere, Jose Mari Aguirrek gogoratu duen bezala: "topografoekin ibili ginen gora eta behera ur-mailaren kotako zuhaitzak botatzen. Gure motozerrak erabili genituen, eta hasieran ez ziguten erregaia ordaindu nahi".

Talka txiki horietaz edota espropiazio aferetaz gain, urtegiaren eraikuntzak ez zuen aparteko haserrealdirik edo protestarik eragin kaltetutako herrietako auzokideengan.

Obrak 1992an amaitu zituzten behin betiko, 182 metro luze eta 53 metroko altuera duen hormigoizko horma utziz, 2.500 hektometro kubiko gordetzeko gaitasuna duena. Anekdota bitxi bezala diputazioak ez zuen Maroñoko alkatea inauguraziora gonbidatu, landa-eremuari egiten zitzaion mespertxuaren adibide.

Agertoki natural berri bat

Urtegiaren eraikuntzak eraldaketa asko ekarri ditu Maroño eta Agiñiga inguruetara. "Urtegiak izugarrizko eraldaketa paisajistikoa eragin zuen zonaldean, hori izan zen lehenengo inpresioa" azaldu du Enrique Arberas biologoak, eraldaketa handiena, ordea, biodibertsitatean dagoela azpimarratu du. "Ur masa berri horren presentzia hutsak biodibertsitatearen hazkuntza izugarria eragin zuen".

"Urtegiak ugaztun eta anfibio espezie ugari erakarri ditu, baina eraldaketa nagusia hegazti urtarren etorreran dago"

Espezie dibertsitate handiena ur-bazterretan aurkitzen da. Duela 30 urteko eta gaur egungo argazkiak alderatuz zuhaitz kopurua nabarmen hasi dela ikus daiteke. Baso txiki ugari sortu dira, eta, hain zuzen ere, paisaia mosaiko hori da biodibertsitate aberats hori ahalbidetzen duena. "Urtegiak ugaztun eta anfibio espezie ugari erakarri ditu, baina eraldaketa nagusia hegazti urtarren etorreran dago" azpimarratu du Arberasek. "Hegaztiak bi modutara hasten dira ur-masa handi horretaz aprobetatxatzen: migrazio prozesuetako atseden gune bezala edo hazkuntza eremu bezala. Gauzak horrela, urtegia eraiki zenetik hegazti urtarren 57 espezie desberdin katalogatu ditugu Maroñon".

Arberasek astez aste osatzen du Maroñon dauden hegaztien zentsua. Urteak darama lan hori egiten eta oso ondo ezagutzen ditu bertatik igarotzen diren

Jose Mari Aguirrek urtegiak ur azpian utzi behar zuen basoko pago baten adaxka hartu eta etxeko soloan landatu zuen. **Ruben Ladron de Gebara / Aiaraldea.eus**

erreportajea

espezie guztiak, baita erreprodukzio bikoteak ere. Arberas 2001. urtean etorri zen Agiñigara bizitzera. Betidanik piztu izan dio interesa inguruak, eta 2017an zonaldearen inguruko liburua argitaratu zuen.

“Askok esaten ziguten erotuta geundela, Maroño munduaren amaieran zegoela, inor gutxi bertaratuko zela honaino”





Aktibo turistikoa

Zalantzarik gabe, urtegiak eta berau inguratzen duten ingurune naturalen balio paisajistikoak Aiaraldeko txoko bisitatuena bilakatu dute Maroñoko urtegia. “Urtegiko dikea, bereziki oso bisitatua da” azaldu du Arberasek; “egunero azaltzen da ETBn, eta aste honetakoa bezalako egun elurtuetan dozenaka argazkilari etortzen dira. Maroñoko urtegia Aiaraldea bezalako txoko ezezagun bateko erreferentzia turistiko nagusia da”.

Bisitarien etorrera handi hori oso nabaria da Maroño herrian bertan kokatuta dagoen Guzurtegi jatetxean ere. 1992ko azaroan ireki zituen ateak landetxeak; urtegiaren adin beretsua dauka.

“Landetxea eta jatetxea irekitzeko lanean ari ginen une berdinean ari ziren urtegiko obrak amaitzen”, gogoratu du Miguel Angel Muguruza Guzurtegiko arduradunak. Amurrion ostalaritzan aritu ostean Maroñon landetxe bat irekitzea erabki zuten; etxea aurkitu eta hau zaharberritzeari ekin zioten. Garai horretan, urtegiko obrako ingeniariekin egin zuten topo bertan. “Gaur egun, jatetxea dagoen etxea hutsik zegoen urte luzez alokairuan egon ostean. Jantokia dena, ukuilua zen garai batean eta urtegiko ingeniariek erabiltzen zuten bulego bezala”.

1991n Maroñora joatea erabaki zutenean nekez imajina zezaketen turistikoki hain erakargarria izango zenik gerora: “Hona etortzea erabaki genuen herria eta Gorobeleko bistak gogoko genituelako. Askok esaten ziguten erotuta geundela, Maroño munduaren amaieran zegoela, inor gutxi bertaratuko zela honaino”.

Landetxe bat irekitzea zuten hasierako helburu, baina bisitarien etorrera handituz joan ala geroz eta gehiago ziren jantoki txikian bazkaria eskatzen zutenak eta negozioaren norabidea aldatu zuten. Gaur egun landetxe izaten jarraitzen duen arren jatetxea da ezagunena. “Bisitarien uholdea 2000. urtetik aurrera hasi zen. Ahoz aho hasi zen zabaltzen leku ederra zela, eta gaur egun esango nuke milaka direla urtean zehar urtegia bisitatzera datozenak”, azaldu du Muguruzak. “Uraren ertzean parrillak eta merenderoak jarri zituzten gerora, eta horrek askoz jende gehiago animatu du ingurunea ezagutzera”.

“Leku pribilegiatu batean bizi gara, hau babesteko aktibo soziala izan behar du gutako bakoitza”

“Era guztietako bisitariak dira Maroñok erakartzen dituenak”, adierazi du Enrique Arberasek. “Arrantzaleak, familiarekin edo lagunekinparrillada bat egitera datozenak, paseo bat ematera datozenak, hegaztiak ikustera..”. Pandemia garaian merenderoaren inguruan 100 auto baino gehiago elkartu izan direla azaldu dute bizilagunek, baina oro har inguruko herriei zein biztanleei aparteko kalterik sortzen ez dioten bisitariak direla nabarmendu dute. “Arazoren bat egon da inoiz oso azkar gidatzen duen jendearekin, eta zabor pilaketa demasa izan da batzuetan, baina uste dut biztanle gehienek begi onez hartzen dituztela bisitariak” adierazi du Arberasek. “Uste dut inbadituagoa sentizten naizela ni biologo bezala beste bizilagunak baino”.

Bai Muguruzak zein Arberasek bisitarientzako azpiegitura gehiagioren beharra ikusi dute, hala nola urtegia inguratzen duen paseo bat errepidetik joan behar ez izateko, inguruak duen bidibertsitate aberatsa erakusten duen informazio panelen bat... Biodibertsitatearen zaintzan ere arreta eskatu du Arberasek: “Nire ustez hor dago erronka nagusia, hemengo biodibertsitatea kontserbatu eta kudeatu behar

erreportajea

Goian Miguel Angel Muguruza, Guzurtegiko jabea; behean Enrique Arberas biologoa eta Agiñigako auzokidea. **Aiaraldea.eus**

da, eta uste dut oraingoz utzikeria dela nagusi".

Etorkizunera begira

Bisitak joan bisitak etorri, egun batetik bestera ur-masa handi batekin bizitzen ikasi zuten herritarrak bizi dira urtegiaren inguruan. "Maroñoko urtegiak mapan jarri ditu Maroño bera, Agiñiga, Madaria eta Salmanton. Errepidea hemen bukatzen zen, oso jende gutxik ezagutzen zituen herri hauek. Urtegirik gabe Lejartzu edo Erbi bezalako herri ezezagunak izango ziren", azaldu du Arberasek.

Ezagun izateak, ordea, ez ditu herri hauek landa eremuan gertatzen ari den despopulazio prozesuetaz libratzen: "Abeltzaintza ustiategi kopuruak behera egin du Maroñon eta Agiñigan, eta Madarian ez da bakar bat ere geratzen. Salmantonen dago indarra soilik". Zorionez, hiriguneekin ondo konektatutako herriak dira, eta Agiñigan, esaterako, dinamika komunitario interesgarriak jarri izan dituzte abian herria kulturalki eta sozialki suspertzeko.

Arberasek landa inguruetako bizi eta kontsumo ereduak aldarrikatu ditu, herri eta paisaia ikusgarri hauen kontserbazioa bermatzeko: "Leku pribilegiatu batean bizi gara, hau babesteko aktibo soziala izan behar du gutako bakoitza".

argazki erreportajea

Martxoaren 31n abiatu zen Korrikaren 22. edizioa Amurrioko plazatik. Milaka lagunek egin zioten ongi etorria euskararen aldeko ekimen erraldoiari eskualdean, eta irudi ikusgarriak utzi ditu bidean. Aiaraldea Komunikabideak kilometro guztien irudika jaso ditu atarian.

Aiaraldean eman ditu bere lehenego pausoak 22. Korrikak

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Euri jasak ez zuen Korrika kikildu, eta martxoaren 31n, arratsaldeko 16:30ean puntuan, Amurrioko Juan Urrutia plazan eman zituen lehen pausoa hizkuntza baten alde mundu mailan egiten den egitasmorik handienak. Irrifarrea aurpegian eta emozioz gainezka, Amurrioko AEK-ko sei irakasleek izan zuten lehenengo kilometroan lekukoan gordetako mezua eskuetan eramateko ardura, eta bide bazterrean txalo artean jaso zituzten Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako milaka lagunek.

Eskuz esku igaro zen lekukoa Amurrion egindako 14 kilometroetan barrena: SOS Aiaraldea, Amurrioko gazte mugimendua, herriko ikastetxe desberdinak, udal-taldeak, kultur eta kirol eragileak... Aiara eta Artziniegara jo zuen, eta arratsaldea Bizkaia aldean igaro ostean eskualdera sartu zen berriro ere, gaueko 22:00ak aldera. Okondo, Laudio, Areta, Arakaldo eta Arrankudiaga Zollo bisitatu zituen, eta ehunka izan ziren euri zaparradari eta tenperatura baxuei aurre eginez harrera egin zioten herriatarrak. Guztiek jarri dute alea, apirilaren 10ean Donostian bukatuko den bide luzean.

argazki erreportajea

argazki erreportajea

argazki erreportajea

Argazki guztiak Aiaraldea.eus atarian daude ikusgai, kilometroz kilometro. **Aiaraldea.eus / AEK**

herriz herri

Aiaraldea

Arrankudiaga-Zolloko eta Arakaldoko alkateekin batzartu ziren Idurre Bideguren senataria, Mikel Otero legebiltzarkidea eta Zigor Isuskiza Bizkaiko foru diputatua, bi udalerriek bizi duten hondakin-uren kudeaketa arazoa bertatik bertara ezagutzeko.

Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko ur-hondakinen kudeaketa arazoei irtenbidea emateko konpromisoa berretsi du EH Bilduk

Idurre Bideguren senataria Txutxi Ariznabarreta eta Jabi Asurmendi alkateekin batzartu zen. **Aiaraldea.eus**

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo, ur-saneamenduari dagokionez, puntu ilun bat direla ohartarazi dute bi udalerrietako alkateek. Aiaraldeko urak bilduko dituen Basurbeko araztegia Araba eta Bizkaiko mugan eraikiko dute. Aldi berean, Galindoko araztegira ur-zikinak bideratzen dituzten kolektoreak Ugaoraino iristen dira bakarrik. Horren ondorioz, ur zikinak Nerbioi ibaira isurtzen jarraitu beharko dute Arrankudiaga-Zollok eta Arakaldok.

"Izugarrizko presioa jasaten dugu bi udalok URA agentziaren eta bestelako estamentuen aldetik ur-zikinen isuria dela eta" azaldu du Txutxi Ariznabarreta. Bi udalek, arazoa sortu ez, "sufritu" egiten dutela adierazi du Arrankudiaga-Zolloko alkateak. "Hori konpontzea ez dago gure esku, ez gara iristen konponbideak eskatzen duen diru inbertsiora. Bi milioi euroko aurrekontua ez duen udalerria da gurea, nola finantzatuko dugu hainbeste milioi euroko kostua duen proiektua?", nabarmendu du Ariznabarretak.

Gaineratu duenez, Arrankudiaga eta Arakaldo artean hiru dira ur-zikinak kolektoreetara bideratzen ez dituzten industriaguneak: Bakiola, Arbide eta Ugarriza uharteko poligonoa. "Bakiolako poligono industrialak 70 pabilioi ditu, mugimendu handia dago. Onartezina da ur zikinak Nerbioi ibaira isurtzea, kolektoreak hain kilometro eskasetara dituztenean". Bi udalerriak kexu dira inork ez diolako gaiari heldu nahi, eta frustrazio egoera batean daudela azpimarratu dute. Adierazi dutenez, ate asko jo dituzte egoera bideratzeko asmoz; URA agentzian, Bizkaiko Diputazioan edota Madrileko Gobernuan, adibidez. Baina, salatu dute inork ez duela egoera bideratu nahi.

> **"Izugarrizko presioa jasaten dugu bi udalok URA agentziaren eta bestelako estamentuen aldetik ur-zikinen isuria dela eta; baina hori konpontzea ez dago gure esku, ezin ditugu horrelako inbertsioak egin"**

EH Bilduren konpromisoa

Egoera bideratzeko asmoz, Txutxi Ariznabarreta eta Jabi Asurmendi alkateekin batzartu zen EH Bilduko ordezkaritza bat. Idurre Bideguren senataria buru zela, bertan egon zirel ere Mikel Otero legebiltzarkidea eta Zigor Isuskiza Bizkaiko foru diputatua. Bidegurenek koalizioaren konpromisoa berretsi zuten, eta ziurtatu dute gaia landuko dutela hainbat erakundetan, Nerbioiko saneamendu arazoei irtenbidea emateko.

Hain zuzen ere, Bidegurenek azalduzuenez, irtenbide teknikoa idatzia dago honezkero, eta finantziazioa da falta den gauza bakarra. "Ezin dugu egoera hau konponbidegabe utzi finantziazio arazo batengatik, ingurumena kaltetzen duen arazo larria da hemendaukaguna", azpimarratu zuen senatariak.

Arrankudiaga-Zollo Bizkaiko ur-partzuergoan integratzeko proiektuan dago jasoa ur zikinen isurketak eteteko proiektua. Arrankudiaga-Zollok Ugaoko kolektoreetara ponpatuko lituzke ur zikinak. Arakaldok, aldiz, ibaian gora dauden Arrankudiagako bi auzorekin batera, Basurbeko araztegira ponpatuko lituzke ur zikinak. "Zenbait erakundetan saiatuko gara presionatzen zonalde honetako saneamenduari irtenbide bat emateko lehenbailehen".

“Aiarako kontzejuak erreferente dira elkarteen jarduerari esker”

JOSEBA TERREROS (Arespalditza, 1981) BERRIRO IZANGO DA ARABAKO KONTZEJUEN ELKARTEKO PRESIDENTEA ETA ERAKUNDE TXIKI HORIEN EGOERARI BURUZ MINTZATU DA.

Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Berriki hautatua izan zara berriro Arabako Kontzejuen Elkarteko presidente, nolakoa izan da prozesua?

Duela lau urte, 2018an, soilik aurkeztu genuen hautagaitza bakarra, nik Lideratzen nuena. Azken hauteskundeetan bi zerrenda egon dira. Gure kasuan ildoa jarraikortasunaren aldekoa da. Bakarrik aldatu ditugu bi zerrendakide, arrazoi pertsonalen ondorioz. Beste bi batu dira, baina ikuspuntu berarekin.

Lurralde zati handia hartzen dute kontzejuek, nola egiten du AKEk lan egunerokotasunean?

AKEk ordezkatzen ditu administrazio batzarretako kideak. Hau da, aholkularitza eskaintzen DIOGU kontzejuak kudeatzen diuten jendeari. AKE ez da inor esateko zer egin behar duten. Izan ere, kontzejua da sistemako adierazpen demokratikoena. Norbanako bakoitzak boto bana du eta batzarrak erabakitzen duena egikaritzen da. AKEk aholkularitza ematen du, jakin dezaten erabaki horiek gauzagarriak diren edo ez. Gure betebeharra da kontzejuen erabakiak errespetatzea.

Zure ustez, kontzejuek behar dute euren erakunde izaera aitortzea, zergatik?

Badirudi, kontzejuen figura nabarmendu gabe, atzean geratzen zarela. Gainera, badaude zenbait aurreiritzi. Adibidez, batzuk pentsatzen dute herrietan bizi direnak lehen sektorean aritu behar direla edo herrian bizitzeagatik hirikoek baino trebakuntza gutxiago dutela. Hori ez da horrela eta XXI. mendean hiritarrak bezain trebatuak gaude herrietan.

Guk erabaki dugu herri batean bizitzea eta, jakina, ezin dugu exijitu hiri batek dituen zerbitzuak, baina baditugu gauzak hirian ez daudenak.

Horregatik erakundea errespetatu behar da, baita bizitza eredu hori hautatu dutenak ere.

Araba oso lurralde zabala eta anitza da, zuen artean esperientzien trukea egiten duzue?

Urtero zenbait jarduera egiten ditugu. Pandemiaren ondorioz, mugatu behar izan ditugu, baina urtero antolatzen dira jardunaldiak gai ezberdinekin eta batzen gara. Jakina, batzarrak dira topagunea.

Bestalde, egun dauden teknologia berriekin kuadrillek euren taldeak dituzte komunikatzeko eta horrek sortzen du elkarrekintza.

AKE bultzatzen ari da sare sozialen erabilpena etengabe, jende gaztea lotzeko, euren herriekin konprometitu daitezen. Gainera, gure irratsaioa da gehien entzuten dena Gasteiz Irratian.

Horrek guztiak eragiten du elkarrekintza eta interes bereko lagunak elkartzen ditugu.

Zuk hurbilen dituzun kontzejuen artean, zer goraipatuko zenuke?

Ni aiararra naiz eta niretzat hemengo kontzejuak erreferente dira Araban. Aintzat hartu behar da kontzeju arabarrak, berez, badirela erreferenteak estatuan. Aiaran elkarteen jarduera ikusgarria da eta horrek eragiten du gizartea aktiboagoa izatea.

Gurean kontzeju eredu ezberdinak ditugu. Badaude txikiak direnak eta bizirauten dutenak, gehienbat, lehen sektoreari lotuta. Horrez gain, badaude kontzeju handiak, Luiaondo edo Arespalitzakoak bezalakoak. Horietan biztanle berrien integrazioa egin behar da, eta bestelako beharrak dituzte, herri txikiekin alderatuta.

Zein izan da kontzejuen lana pandemian?

Guk ez dugu osasun eskumenik, baina gu diru-laguntzen prozeduren inguruan antolatzen gara eta pandemia agertu zen obrak egikaritu behar genituenean. Oso zaila izan zen, itxialdi ezberdinek ezinezkoa egiten zuten ezer antolatzea.

Obra bat egiteko orduan, presidentea ez bazegoen berrogeialdian, enpresaburua zen. Hondamendia izan zen, eta, hala ere, ia guztiak bukatu ziren.

Gure beste eskumen bat jaiak dira eta ezin izan genituen antolatu. Gurean garrantzitsua den beste elementu bat da gizarte etxea. Leku batzuetan oraindik itxita daude.

Aurreikusi ez genuena izan zen jende pilo etortzea gure herrietara. Aparkaleakuak eta abar kudeatu behar izan genituen. Horrez gain, egon ziren gatazkak zenbait portaera bidegaberen ondorioz.

Pandemiak ere ekarri du jende asko erroldatzea herri txikietan. Orain ikusiko dugu geratuko diren.

herriz herri

Aiaraldea

3.000 metro karratu baino gehiago hartuko ditu Ekiola enpresak Saratxon, plaka fotoboltaikoak instalatzeko

1.818 plaka fotoboltaikoren instalazioa iragarri dute. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ekiola egitasmoa aurkeztu zuten atzo arratsaldean Laudioko Kultura Etxean. Arabako Foru Aldundia, Energiaren Euskal Erakundea eta Mondragon Taldea dira horren sustatzaileak eta proiektua proposatu zuten Aiaraldean, 'Ekiola Araba' deiturikoa.

Horrela, hiru erakundeek megawatt bat sortzeko azpiegitura instalatu nahi dute Saratxoko inguruetan. Bileran aipatu zutenez, dena nahiko aurreratua daukate prozeduraren aldetik. Hitzaldian parte hartu zuen laudioar batek adierazi dio Aiaraldea Komunikabideari 1.818 plaka fotoboltaiko jarriko dituztela: "Aintzat hartuta plaka bakoitzak 2 metro karratu okupatzen duela, gutxienez 3.000 metro karratu hartuko dituzte".

Bultzatzaileek iragarri zuten, antza, tentsioertaineko sare elektrikoa dagoela bertan eta energia sortzeko behar den azpiegitura guztiak aurreikusi dituztela jadanik.

500 bazkide

Foru Aldundiaren, EEEren eta Mondragon Taldearen helburua da 500 bazkide inguru lortzea eta bakoitzak bere etxeko kontsumoaren araberako partaidetza izatea sozietate kooperatiboan. Horretarako, dena den, enpresa banatzailea ere sortu beharko da.

500 bazkide horiekin, erakundeek utziko lukete euren esku enpresaren %70a. Atzo adierazi zutenez, proiektuaren kudeaketak 250.000 euro inguru balio ditu eta asmoa egikaritzea milioi bat euro baino gehiago. Dena den, 2023rako martxan egotea nahi dute.

Aiarako Berdintasun Martxako Neurtuko sari banaketa egin zuten

Altzarrate eta Kaskagorri kirol elkarteek iragan martxoaren 13an antolatutako Aiaraldeko Berdintasunaren Aldeko Martxaren III. edizioko sari banaketa egin zuten apirilaren 1ean Arespalditzan.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Emakumeen Gelan elkartu ziren apirilaren 1ean Altzarrate eta Kaskagorri kirol elkarteetako arduradunak, iragan martxoaren 12an egindako Aiaraldeko Berdintasunaren Aldeko Martxaren III. edizioko sari banaketa egiteko.

Ez dute ez azkarrena ez geldoena saritu: bi muturren arteko denborak kalkulatu eta ibilbidea osatzen bataz besteko denboratik hurbilen geratu ziren parte hartzaileak saritu dituzte. Lehenengo postuan geratu direnak, gainera, sari berezi bat jaso dute: futbol pilota bat. Pilota hauek, ordea, ez ziren nolanahikoak, erabilitako pilotak baizik; "futbolean jolasteko hautua egindako neska gazteek erabilitakoak" azaldu du Iñigo Egiguren Altzarrateko kideak.

Ekitaldia probestu zuten ere datorren urteko hitzorduaren berri emateko. Honezkero data jarri diote Aiaraldeko Berdintasunaren Aldeko Martxaren IV. edizioari: 2023ko martxoaren 13an izango da.

Urduña

Ingurumen Sailera jo du Urduñako Udalak, Somolsa fabrika zenaren egoera dela eta

Lantegiko sabaia erori egin da eta zonaldea apurtutako uralitaz bete da. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azken hilabeteetan hainbat lapurreta jazo dira Urduñako Somolsa fabrika abandonatuan. Udalak Aiaraldea komunikabideari azaldu dionez, lapurrek eraikinaren estrukturaren hainbat zati eraman dituzte, eta sabaia erori da horren ondorioz.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailera jo du tokiko erakundeak. Izan ere, fabrikaren sabaia uralitaz eginda zegoen. Material hori amiantoz osatuta dago, epe luzera birikietako minbizia eragiten duen elementua. Gauzak hala, zonaldea garbitzea bilakatu da udalarentzako lehentasuna, herritarrentzako arriskutsua izan ez dadin.

Sabadell bankua eta Elkargi finantza-entitatea dira lursailaren jabeak. "Eurekin hitz egin dugu eta onartu egin dute amiantoa kentzearen ardura euren gain hartzea", azaldu dio Itziar Biguri alkateak Aiaraldea Komunikabideari, "salaketa ere jarri dute, egondako lapurretengatik". Dena den, bi entitateek diru inbertsio handia egin beharko dute amiantoa modu seguruan kentzeko. Enpresa espezializatu batek egin behar du lan hori, eta aurrekontuak altuak izan ohi dira. Latiorroko Ikastetxean zegoen uralita kentzeko, adibidez, 800.000 euro baliatu behar izan zituen Hezkuntza Sailak iaz.

Gainera, kontuan hartu behar da Somolsako uralita oso egoera txarrean dagoela, plakak sabaietik erori eta txikitu egin direlako.

Duela ia hogei urte, 2004. urtean itxi zituen ateak Somolsak. Ordainketak etenda ditu orduz geroztik, eta 2,4 milioi euroko zorra du pilatuta ogasunarekin.

7,5 milioi euroko aurrekontu bateratua izango du Urduñako Udalak

Udalak 5.976.621,16 euroko aurrekontua izango du, Urduñederra sozietate publikoak 449.661,67 eurokoa eta 2.290.876,71 eurokoa, aldiz, negusien egoitzak.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan ostegunean onartu zituzten Urduñako Udal Aurrekontuak, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. 7,56 milioi euroko plagintza ekonomiko bateratua izango du tokiko erakundeak aurten, iaz baino 880.354,22 euro gehiago.

Udalak 5.976.621,16 euroko aurrekontua izango du, Urduñederra sozietate publikoak 449.661,67 eurokoa eta 2.290.876,71 eurokoa, aldiz, nagusien egoitzak (Urduñako Arkupea S.L.).

Proiektu nagusiak

Hainbat proiektu esanguratsu aurreikusi dituzte. 246.000 euro bideratuko dituzte La Estación kalea birgaitzera. 32.000 euro Gran Via eta Agua Saladako saneamendua hobetzera, 20.000 euro udal-ibilgailu elektronikoak hobetzera, 5.679,96 euro makineria erostera, 48.811,4 euro harresia berritzera, 49.610 euro skate park berria atontzera eta 13.000 euro edukiontzi berriak erostera.

Nagusien egoitzaren erronka

Baina aurtengo erronka nagusia adinekoentzako zentroa izango da. 2019an baino 505.000 euro gehiago bideratu beharko ditu Udalak egoitza kudeatzen duen Urduñako Arkupea S.L. sozietate publikora. "COVID-19aren ondorioz, erabiltzaileak murriztu dira, eta giza balibide zein baliabide materialen beharrak handitu", azaldu zuen Itziar Biguri alkateak aurrekontuak aurkezteko eginiko bileran, "Urduñako egoitzak oheak okupatuta izan behar ditu irabaziak lortzeko, eta 2021an ez da aurreikusitako okupazioa lortu".

Gauzak hala, Aldundiarekin harremanetan jarri da tokiko erakundea, egoitza erabat betetzeko estrategia diseinatzeko. "Hitzarmen bat sinatu beharko litzateke Arabako eta Bizkaiko Aldundien artean, Arabako herritarrak ere egoitza honetara etorri ahal izateko, Urduña irla baten moduan geratzen baita bestela".

Urduñederra S.L.-ra bideratuko diren 449,661,67 euroetatik, aldiz, 121.437,84 euro bideratuko dira enpresa publikoak dituen zorrak kitatzera. Bi zor handi ditu sozietateak Kutxabankekin eta La Caixarekin, 2005 eta 2007 urteetatik, hurrenez hurren.

herriz herri

Artziniega

Artziniegako Udalak 825.000 euro jasoko ditu kulturaren eta alde zaharraren sustapenerako

Testua
Aitor Aspuru Saez

Artziniegako Udal Gobernu Taldeak bilerak izan zituen pasa den astean Eusko Jaurlaritzako hainbat ordezkarirekin finantzaketari buruz mintzatzeko. Izan ere, Turismo Sailak 25.000 euroko ekarpena egingo dio Udalari, Hiribildu izendapenaren 750. urteurrena ospatzeko.

Goio Zurro Turismo zuzendariarekin batu zen alkatea eta, besteak beste, azaldu zion zertan datzan prestatu duten egitaraua. Halaber, Joseba Vivancok aipatu zion Udalak ahalegin handia egin duela, dituen bitarteko urriak aintzat hartuta, herrian turismoa sustatzeko.

Bestalde, Kultura Sailak 800.000 euroz hornituko du tokiko erakundea eta diru horren xedea izango da alde zaharrean kokatuta dauden Kultura Etxea eta dorretxea egokitzea. Horretarako lanak egikaritu beharko dira eta, zehazki, dorretxea hotela bilakatzea da asmoa.

Gai hori lantzeko Andoni Iturbe Kultura Sailburuordeak eta Mikel Aizpuru Ondare Zuzendariak bisitatu zuten Artziniega. Besteak beste, Udalari azaldu zioten zer nolako urratsak bete beharko dituen tokiko erakundeak dirua jasotzeko hurrengo bi urteetan.

Kultura Saileko konpromisoaren jatorria, zehazki, Aiaraldea berpizteko Eusko Legebiltzarrean onartu zen plan sozioekonomikoa da. 24 eta 26 milioi euro arteko inbertsioa utziko du egitasmoak eskualdean guztira.

Orozko

Madres Mercedarias egoitzak Elikagaien Bankua erabiltzen du, nahiz eta gastu horretarako diru publikoa jaso

Testua
Txabi Alvarado Bañares

LAB eta ESK sindikatuek Ibarrako egoitza kudeatzen duen Aliados Fundazioaren zenbait pratika "ez oso etiko" azaleratu dituzte, eta salaketa jarri dute Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskaritzan. "Salaketa horretan Ikuskaritzari jakinarazten diogu familiei COVID-19az babesteko materiala kobratzen zaiela eta egoitzak Elikagaien Bankua erabiltzen duela, besteak beste, zaintza zerbitzua jasotzen dutenei jaten emateko, nahiz eta jasotzen duten diru publikoarekin bateraezina izan", azaldu du LAB sindikatuak ohar baten bidez.

Laudio

Turismo bulegoa ireki nahi du Udalak Lamuzako kioskoan, udarako

Iaztik dago hutsik kioskoa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Turismo bulegoa berrireki nahi du Laudioko Udalak, baina ez orain arteko toki berean, zonalde deigarriago batean baizik: Lamuzako plazako kioskoan. Espazio hori iaztik dago hutsik, bertan prentsa saltzen egon den bizilaguna jubilatu zenetik, alegia. "Espazioaren jabearekin hitz egiten gabiltza azpiegituraren lagapena adosteko", azaldu du Ander Larrinaga zinegotziak, "gure asmoa da bulegoa hemendik 3 hilabetera ireki ahal izatea".

Baina ez dira horretara mugatuko. Bulegoa irekitzea ekintza bat baino ez da izango, Turismo Planak biltzen dituen beste hainbaten artean. Martxoaren 24an egin zuten agerraldian ekimena aurkezteko, eta Estrategia eta Hirigintza Zinegotziak eman zituen azalpenak.

Bere hitzetan, aurkeztu duten turismo plana "koherentea" da Laudiok dituen aukera eta beharrekiko. "Ez dugu Bartzelona, Gaztelugatxe edo Donostia izatea bilatzen", nabarmendu zuen Larrinagak. "Eguneko bisitariak" erakarri nahi dituzte batez ere; hau da: Laudiora egun-pasa datozen pertsonak eta bertako zerbitzu, ondare, natura eta produktuez gozatuko dutenak. Horri begira, hainbat egitasmo jarriko dituzte martxan datozen bi urteetan. Aurten, adibidez, "eraztun berdea" osatu nahi dute. "42 kilometroko ibilbide zirkularra izango da, eta herriko naturaz gozatzeko aukera emango du". Seinale berriak ere jarri nahi dituzte, informazio panelekin batera. "Baselizen ibilbidea" ere osatu nahi dute, eta bisita gidatuak antolatuko dituzte herriko "gune interesgarrietan", Lamuzako parkean edota Ermualden kasu.

Azken toki hori bihurtu nahi dute "txangozaletasun naturalerako erreferentzia gune". Teknologia berriak erabiliko dituzte horretarako, "santutegiaren eta bere ingurunearen ondare, etnografia eta arkeologia mailako garrantzia ezagutarazteko".

Tokiko produktuak sustatzeko ekimenak ere egin nahi dituzte. Horrez gain, ekitaldi handiak Laudiora ekartzeko apustuan ere sakondu nahi dute (Itzulia edo nazioarteko kultur jaialdiak, kasu).

Egingo dituzten ekintza guztiak finantzatzeko bideak ere aztertzen ari dira. Europako Funtsak edota Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza deialdiak baliatu nahi dituzte, besteak beste. "Orain arte ezin ginen deialdi horietako askora aurkeztu, turismo-bulegoa izatea nahitaezko baldintza zelako".

Laudio Hazi

Turismoaz gain, tokiko garapen ekonomikoa ere izan zuten hizpide lehengo eguneko prentsaurrekoan, Laudio Hazi garapen agentziaren eskutik. Agentziaren logo berria aurkeztu zuten. Agerraldian logoaren diseinatzailea egon zen, Asier Rodriguez gazte laudioarra

Agentziari dagokionez, bi gauza egin nahi dituzte, funtsean: Enpresa hazitegiko zerbitzuak hobetu eta sustatzea eta jarduerak egitea "ekintzailetza kultura" herritarren artean sustatzeko, "gazteen artean, batez ere". Gaztelekuan tailerrak egingo dituzte horretarako, besteak beste.

Horrez gain, Laudio Group elkartea sustatu nahi dute, Udalaren eta herriko enpresen arteko "lanerako mahaia" izan dadin. "Enpresen artean elkartearen existentzia ezagutarazi behar dugu eta elkarteko kide bihurtzea sustatu, kolektiboaren jarduera koordinatu, gauzatu beharreko hainbat proiektuak identifikatu eta hauek bultzatu", azaldu zuen Andoni Orue Garapen Ekonomikorako zinegotziak agerraldian.

Azkenik, enpleguaren sustapenarekin ere jarraitu nahi dutela adierazi zuten agerraldian. Hainbat enplegu programa dituzte esku artean horretarako.

Laudio

Jaia bilakatu zen La Milagrosa Ikastetxeko 100. urteurrena

150 ikasle ohi inguru batu ziren apirilaren 2an La Milagrosa Ikastetxeko 100. urteurrena ospatzeko. Azken hilabeteetan ekintza ugari antolatu dituzte Laudion efemeridearen bueltan.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Hamaiketakoarekin hasi zen ekitaldia, txakolin eta gildekin. Ikastetxeko gelen ateak irekita egon ziren eta ikasle ohiek baliatu zuten aukera ikusteko zenbat aldatu den hezkuntza zentroa azken urteotan. Erakusketa ere prest zegoen bertan eta bazkarira hurbildu zirenek irakasleekin trukatu zituzten iritziak eta oroitzapenak. Ikasle ohi bakoitzari txapa oparitu zioten, ume garaiko argazki batekin eginikoa. Bazkariaren ondoren, ikastetxeko mojak omendu zituzten eta gero karaokea eta musika egon ziren, arratsaldeko azken ordura arte.

Ekintza gehiago

Azken hilabetean ekintza ugari antolatu ditu La Milagrosa Ikastetxeak efemeride borobila ospatzeko. Laudioko Kultur Etxean argazki zaharren erakusketa atondu dute, eta martxoaren azken asteburuan *Red de libertad* filma proiektatu zuten Laudioalde lanbide heziketa ikastetxeko aretoan. filmeko protagonista den Assumpta Serna aktorea izan zen bertan. Grabaketaren nondik norakoak kontatu zituen Bartzelonako antzezleak.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com
75 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

Areta

UNAI LLANO ANDA
ARETAKO BIZILAGUNA

Areta bolatoki gabe geratu da

Tristea da, baina egia. Areta bolatoki gabe geratu da. Hainbeste denboraren ostean, bere historia txikia zuen azpiegitura desagertu zen ostiralean, herriaren oniritzirik gabe. Udalak behingoz berrituko zuela uste genuen eta bat-batean estali dute, arazoa eurentzat konponduz. Zer nolako tristura eta zer nolako haserrea dugun Aretako bizilagunok, ez baitakigu zer dagoen erabaki horren atzean.

Bolatokian jaialdi bat egiten zen urtero, eta eskualdeko edota beste toki batzuetako (Gasteiz kasu) bizilagunak bertaratzen ziren jaien barruan egiten zen zita horretara. Aretako jaiak itzuliko diren arren, zita hori ezingo da errepikatu aurten, Laudioko Udalari esker.

Badakigu eta ulertzen dugu gutxi jolasten zela bertan, baina hori ez da arrazoi nahikoa bolatokia desagerrarazteko.

Oso gogaituta gaude Udalarekin. Gutxienez, galdetu ahalko liguke ea bideragarria ikusten genuen bolatokia deuseztatzea. Baina, ez dakigu nork egin duen gunea estaltzeko eskaera, ezta horretarako arrazoia ere. Etorri eta estaltzera mugatu dira. Oso txarto, horrela ez dira gauzak egiten.

Egoera kaskarrean zegoela ikusita, lau bizilagunek gunea erreformatzea erabaki zuten duela urte batzuk, dirua euren poltsikotik jarrita. Pertsona horiek hitzik gabe geratu dira orain, eta bolatokirik gabe. Tradizio handiko espazioa zen gainera, bola arabarreko kategorian sartzen zen inguru honetako bakanetarikoa. Eskerrik asko Udalari beste kultura eta kirol azpiegitura bat gabe uzteagatik. Beste gune historiko eta zahar bat gabe.

Gaur hau da, bihar zer izango da? Tristea, baina egia. Espazioa ustiatzearen aldeko apustua egin ordez (gazteei jolasten irakatsiz, adibidez) estali eta desagerrarazi egin dute. Espero dugu Udalak aurpegia ematea eta bere arrazoiak azaltzea Aretako bizilagunoi eta bolatokia erabiltzen zutenei.

AIARALDEA GAUR

agenda

2022/04/06
2022/04/27

Azokak eta aldarrikapenek bat egingo dute

Dolumin Barikuan, Laudion

Giro bizia aurreikusi daiteke ostiral honetarako Laudion. Bi urteko etenaldiaren ostean, Dolumin Barikua ospakizuna itzuliko da herrira, baina hainbat berezitasunekin.

Aberedunak elkarteak uko egin zion ohiko abereen azoka antolatzeari, udal hiltegiaren itxieraren aurka protestatzeko. Gauzak hala, Udalaren gain geratu da programa osoaren koordinazioa. Egun osoko egitaraua prestatu du tokiko erakundeak, goizetik gaueko ordu txikietara arte luzatuko dena.

Euskal jaki eta artisau produktuen azokarekin hasiko da eguna. 60 postu egongo dira guztira, Aldai eta Herriko plazen artean banatuta, 9:30etik 14:30ak arte. 12:00etan herri kirolak egongo dira Aldai plazan, eta ordu berean abiatuko da Bidebietako trikitilarien kalejira, hiru orduz luzatuko dena.

Arratsaldean, aldiz, umeentzako herri kirolak egongo dira Aldai plazan, 17:00etatik 19:00ak arte. Ordu horretan, aldiz, Nafarroako jotak egongo dira Herriko plazan. Ekin Joleak txistulari taldeak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu 20:00etatik 21:00etara, eta Santa Luzia abesbatzak kontzertua eskainiko du Done Petri elizan, 20:15ean. Akerbeltz erromeria arduratuko da eguna amaitzeaz. 23:00etatik 3:00etara eskainiko du kontzertua, Alberto Acero plazan.

Idi probak

Idi probak ere egongo dira, 21:00etan udal probalekuan. Asteburu osoan zehar luzatuko da ekimena. Larunbatean 21:00etan jarraituko dute probekin, igandean 18:00etan eta astelehenean 21:00etan berriz.

Mobilizazioa

Aldarrikapenek ere presentzia izango dute ostiralean, mobilizazioa deitu baitu Aiaraldeko Greba Batzordeak 'SOS Aiaraldea' lemapean. 12:30ean abiatuko dira Aldai plazatatik, eta hainbat sektore eta eragile batuko dira bertan: Hiltegia ez itxi! plataformako kideak, Madres Mercedariaseko langileak, Arabako Metaleko Sektoreko langileak edota Artiacheko grebalariak, besteak beste.

MUSIKA

04.07 Osteguna
20:30 LAUDIO
RADIADORES VUEJOS ETA ERIZO
Post-punk eta post-core kontzertua
Orbeko Etxea

04.08 Ostirala
22:30 URDUÑA
URTZ ETA MIKEL BIZAR
Burubio Kultur Elkartea

04.08 Ostirala
23:00 LAUDIO
AKERBELTZ ERROMERIA
Dolumin Barikua
Alberto Acero Plaza

04.09 Larunbata
20:30 LAUDIO
BISTURI, SONS OF DECACY ETA ENCABRONATION
Orbeko Etxea

04.09 Larunbata
22:00 AMURRIO
4 BANCOS ETA BIZIRAUN ERROMERIA
Gazte Martxaren aurkezpen biraren barruan
Amurrioko Gaztetxea

04.22 Ostirala
19:30 AIARA
AIARA DANTZA TALDEA, FANFARRE BETI JAI, LUHARTZ ETA OIHAN VEGA
Aiarako jaiak
Arespalditza

04.22 Ostirala
22:30 AMURRIO
EZPALAK ETA MADELEINE
Burubio Kultur Elkartea

04.23 Larunbata
18:30 AIARA
XAIBOR, AKERBELTZ ERROMERIA ETA DJ MARKELIN
Aiarako jaiak
Arespalditza

KIROL JARDUERAK

04.08 Ostirala
12:00 LAUDIO
HERRI KIROLAK
Arabako Herri Kirolen Federazioak antolatuta
Aldai Plaza

04.09 Larunbata
17:00 ARTZINIEGA
HERRIKIROLAK: ARABAKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA
Bizindar, Betagarri eta Donemiliagako taldeen parte hartzearekin

04.07 Osteguna
18:00 URDUÑA
GORPUTZ ADIMENA
Begoña Juaristik gidatutako ikastaroa
Alondegia

04.06 Asteazkena
19:00 ARTZINIEGA
BERDINTASUNA ELKARTEETAN
Laia Eskolak antolatutako tailer praktikoa
Udaletxe zaharra

04.08 Ostirala
19:00 ARTZINIEGA
BURDIN AROA AIARAN, ELIZAREN HAITZULOAREN KASUA
Jon Obaldiak eskainitako hitzaldia
Udaletxe zaharra

04.09 Larunbata
09:30 ARTZINIEGA
KALIGRAFIA GOTIKOAREN TAILERRA
Izen ematea: 945 396 394
Liburutegia

FAMILIA JARDUERAK

04.08 Ostirala
17:30 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Gurasolagun eta Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren eskutik
Alondegia

04.10 Igandea
17:30 AIARA
DOMEKERO
Haurrentzako tailerrak
Izoriako txokoa

04.10 Igandea
17:30 LAUDIO
IRRIEN LAGUNAK: ELKARTASUN JANTOKIA
Faktoria

04.19 Asteartea
10:00 LAUDIO
UDABERRILEKUAK: NATURAN ESPERIMENTATZEN IKASTEN
Kirikiño Atseden Taldeak antolatuta
Kirikiñoren Baratza

04.19 Asteartea
16:30 LAUDIO
UDABERRIKO SORKUNTZA TAILERRAK
Muralismo, graffiti...
Kirikiño Atseden Taldeak antolatuta
Kirikiñoren Baratza

IKUSKIZUNAK

04.08 Ostirala

Udaberria
jolasten igaroko dute Isasin

Kirikiño Atseden taldeak Udaberri lekuak antolatu ditu apirilaren 19, 20, 21 eta 22an, Kirikiñoren baratzeko jolas-parekean. Bertan naturarekin esperimentatuz arituko dira. 2008 eta 2017an jaiotako haur eta gazteei bideratutako ekintzak egingo dituzte. Horien artean, sorkunzta tailerrak dira iragarri dituzten ekintzetako batzuk; graffiti eta muralismoan aritzeko.

Korrikaren amaiera
festara joateko autobusa antolatu dute eskualdetik

Iragan ostegunean abiatu zen 22. Korrika Amurriotik, eta egun berean zeharkatu zuen eskualde osoa. Hala ere, euskararen aldeko ekimen hori ez da guztiz amaitu eskualdean.

Igandean amaituko da Korrika Donostin, eta bertara joateko aukera izango dute aiaraldearrek, eskualdeko autobusa antolatu baita.

Ondorengo tokietatik abiatuko da: Urduñatik (8:30ean Suhiltzaileetatik), Amurriotik (8:45ean elizaren albotik) eta Laudiotik (9:00etan Aldaikoerreka plazatik).

Itzulera, aldiz, 19:30ean izango da Donostiatik. Tiketek 12 euro balioko dute eta izena emateko bi modu egongo dira: Laudio eta Amurrioko AEK euskaltegietara bertaratuta edo mezua bidalita ondorengo helbide elektronikoetako batera: laudio@aek.eus edo amurrio@aek.eus.

Kartelera

LAUDIOALDE ARETOA
Mediterraneo
APIRILAK 9
LARUNBATA (3 euro)
18:30

AMURRIO ANTZOKIA
La peor persona del mundo
APIRILAK 10/11
IGANDEA/ASTELEHENA (5/3,75 euro)
19:30/20:00

LAUDIOALDE ARETOA
Flee
APIRILAK 16
LARUNBATA (3 euro)
18:30

AMURRIO ANTZOKIA
Codigo Emperador
APIRILAK 24/25
IGANDEA/ASTELEHENA (5/3,75 euro)
19:30/20:00

TXAPELKETA
Bizindar, Betagarri eta Donemiliagako taldeen parte hartzearekin
Toñin Luengas frontoia

04.15 Larunbata
09:00 LAUDIO
BIZKAIKO PARAPENTE TXAPELKETA
Santa Marina

04.23 Larunbata
12:45 AIARA
EMAKUMEZKOEN HERRI KIROL ERAKUSKETA
Aiarako jaiak
Arespalditza

04.23 Larunbata
16:30 AIARA
TXIRRINDULARITZA SARI NAGUSIA
Jesus Isasi Memoriala
Arespalditza

04.23 Larunbata
12:00 AIARA
BOLOEN JAURTITZEA
Arabako Bolo Txapelketa
Kexaako bolatokia

HITZALDIAK, TAILERRAK

04.06 Asteazkena
17:00 LAUDIO
HAURREN MUGIMENDU ASKEAREN INGURUKO SOLASALDIA
Laudio Ikastolako Haur Hezkuntzako 1. zikloko, koordinatzaileak gidatua
Laudio Ikastola

04.06 Asteazkena
18:00 AIARA
BERDINTASUNA ELKARTEETAN
Laia Eskolak antolatutako tailer praktikoa
Emakumeen gela

04.06 Asteazkena
19:00 LAUDIO
'GUREAN' ETA 'DONBASS' DOKUMENTALEN PROIEKZIOA
Korrika Kulturaleko egitarauaren barruan
Orbeko Etxea

04.06 Asteazkena
18:00 OKONDO
BERDINTASUNA ELKARTEETAN
Laia Eskolak antolatutako tailer praktikoa
Kultur Etxea

IKUSKIZUNAK

04.08 Ostirala
19:00 URDUÑA
BEATRIZ EGIZABALEN BAKARRIZKETA
Korrika Kulturalaren egitarauaren barruan
Alondegia

04.21 Osteguna
17:00 AMURRIO
ZINEMA: LA CUADRILLA
Amurrioko Nagusien Kontseiluak antolatuta
Nagusi Etxea

04.23 Larunbata
20:00 LAUDIO
GOOD SEX, MARITXU
Gurutze Beitia, Susana Soleto eta Itxaso Kintana aktoreekin
Amurrio Antzokia

04.08 Ostirala
09:30 LAUDIO
EUSKAL JAKI ETA ARTISAUTZA PRODUKTUEN ERAKUSKETA
Dolumin Barikua
Herriko Plaza

BESTELAKO JARDUERAK

04.08 Ostirala
12:30 LAUDIO
SOS AIARALDEA!
Mobilizazioa
Aldai Plaza

04.08 Ostirala
21:00 LAUDIO
IDI-PROBAK
Herri Kirolen Lauzaldi Elkarteak antolatuta
Udal probalekua

04.10 Igandea
09:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
AUTOBUSA DONOSTIARA
Korrikaren amaiera jaia
Zolloko Plaza

04.10 Igandea
18:00 LAUDIO
IDI-PROBAK
Herri Kirolen Lauzaldi Elkarteak antolatuta
Udal probalekua

04.10 Igandea
10:30 AIARA
ARESPALDITZA-IZORIA-ARESPALDITZA
Ibilbide morea
Aiarako udala

INFO +
aiaraldea.eus

argazki erreportajea

Ostiralean hasi zen Arabako Bertso Txapelketa. Aurkezpena Aiaraldea Ekintzen Faktorian izan bazen, lehen kanporaketa Amurrion egin zuten. Igandean Asier Rubio aiararrak lan txukuna egin zuen Trebiñun eta apirilaren 9an Iñaki Cabezaren eta Unai Mendibilen unea helduko da.

Aiaraldearen aztarna aurtengo Arabako Bertso Txapelketan

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Arabako Bertso Txapelketak zapore aiaraldearra izan du, gutxienez, hastapenean. Izan ere, Aiaraldea Ekintzen Faktorian izan zen aurkezpena martxoaren erdialdean eta Amurrion jokatu zen lehen kanporaketa. Hain zuzen, bertsolariek Kultura Etxea hartu zuten eta ikusle talde anitzak bete zuen aretoa.

Oholtzan eskarmentu handiko hiru bertsolari -Iñaki Viñaspre, Unai Anda eta Paula Amilburu-, hiru gazterekin lehiatu ziren eta aldea agerikoa izan zen. Horrek ez du esan nahi Xabier Antiak, Eukene de los Airesek edota Aitor Najerak txarto egin zutenik, baina euren artean urduritasuna eta presioa nabaria zen, besteak lasaitasunez jardun ziren bitartean. Edonola ere, tentsioak tentsio, saio atsegina egin zuten eta azkar igaro zen lehia. Gauzak horrela, Viñaspre izan zen irabazlea, Unai Anda bigarren eta Paula Amilburu hirugarren.

Hurrengo egunean epaileek, antolatzaileek eta gai jartzaileak Biasterira jo zuten. Hotz ikaragarria eta eguraldi petrala gainditu zuten bertsolariek herrira heltzeko eta euren indarrak eta trebezia neurtu zituzten Aitor Ugartek, Asier Otamendik, Ander Aranburuk, Manu Bandalak, Unai Gomezek eta Manex Agirrek.

Zalantzarik gabe, Arabar Errioxako saioa izan zen asteburuko serioena eta noizbehinka barreak eragin bazituzten ere, bertsoen atzean Ukrainako gerraren itzal iluna sumatu zen maiz, baita eragiten duen ezinegona ere. Azkenean, Manex Agirre izan zen garaile, Asier Otamendi bigarren eta Manu Bandala hirugarren.

Azkenik, Trebiñun izandako hitzorduak itxi zuen final zortzirenen lehen txanpa. Hango Gizarte Etxeko oholtzara igo zen Aiaraldeko ordezkari bat, Asier Rubio aiararra. Luiaondoarra urduri heldu zen, eta aitortu zuen ez zuela bat ere prestatu txapelketa, baina Oier Arbina, Andere Arriolabengoa, Danel Herrarte, Xabi Igoa eta Irati Anda ez ziren horretaz konturatu. Izan ere, Rubiok saio polita egin zuen eta une barregarrienak eragin zituzten berak eta Irati Andak izandako bertso lizunek. Finean, Trebiñuko saioan berdintasuna handia izan zen eta, hala ere, Rubio hirugarren sailkatu zen, hurrengo kanporaketan sartzeko aukerak mantenduta. Irabazlea Andere Arriolabengoa izan zen.

Asteburuan bi amurrioar

Larunbat honetan, aldiz, Iñaki Cabeza eta Unai Mendibilen txanda helduko da Langraizen. Felipe Zelaieta, Maddi Agirre, Markel Yoller eta Peru Abarrategi izango dira euren arerioak.



argazki erreportajea

ASIER RUBIO HIDALGO

JAIOTZA
1995, Luiaondo

JARDUERA MOTA
Bertso irakaslea

BIOGRAFIA
2013an Amurrioko Bertso-Eskolan hasi zen, Unai Mendibil irakasle zuela. Urte horretan Arabako Eskolarteko Txapelketan kantatu zuen lehenengo aldiz. 2014tik Arabako Kuadrilla artekoan Aiaraldeko taldean partaide. 2013tik Laudioko Institutuko bertso-eskolako irakasle. 2016tik Arabako Bertsozale Elkarteko zuzendaritza kidea.

UNAI MENDIBIL ETXEBARRIA

JAIOTZA
1981, Amurrio

JARDUERA MOTA
Bertso irakaslea

BIOGRAFIA
16 urterekin Amurrioko Bertso-Eskolan ikasle. Arabako Eskolarteko Txapelketan pare hartu izan du. Arabako Bertsolari Txapelketan parte hartu eta Antolatzaile Taldean aritu da. 2012ko Arabako Kuadrilla arteko Txapelketan finalista izan zen Aiaraldeko taldean. Bertso-eskola, barnetegi eta hezkuntza arautuko irakaslea da. Arabako Bertsozale Elkarteko zuzendaritzakidea da.

IÑAKI CABEZA CONEJO

JAIOTZA
1976, Laudio

JARDUERA MOTA
Herri bertsolaria

BIOGRAFIA
Amurrioko bertsolaria. Euskara ikasi eta gero, bere kabuz bertsozaletu zen. 2008an, Amurrioko Bertso-Eskolan ikasle, Iñaki Viñaspreren esanetara. 2010ean, Laudioko Bertso-Eskolan Pedro Bizkarguenagaren ikasle. 2012ko Arabako Kuadrilla artekoan Aiaraldeko taldean partaide, eta finalera iritsi zen. Laudion Emakumeen eguna aldarrikatzeko ekintza bat izan zuen lehen plaza.

elkarrizketa

“Beste ezeren gainetik, lagun talde bat da gurea”

CUATRO BANCOS TALDEKO KIDEAK DIRA ENDIKA BEOBIDE, GENTZA ERRENTERIA UGARTE, IMANOL VELASCO, ALEX YARZA ETA GORKA JIMENEZ. HIRU ABESTI PLAZARATU DITUZTE DUELA GUTXI, ETA EUREN LEHEN DISKOA GRABATZEN ARI DIRA UNEOTAN.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Duela gutxi argitaratu duzue zuen lehen EPa. Nolakoa izan da lan hori kaleratu arteko prozesua?

Prozesu oso luzea izan da, baina nahiko polita. Egun batean geratu ginen apur bat jo eta ondo pasatzeko. Seriotausnez hartu genuen eta apurka apurka joan gine talde itxura hartzen.

Hasieran taldea ez zen orain dena. Bost kide ginen, baina beste kide bat zegoen. Aldaketa egon zen lehenengo eta bigarren kontzertuaren artean. Ondo pasatzeko eta barre batzuk botatzeko batu ginen. Lagunak gara, eta hori da garrantzitsuena: zer nolako giroa sortzen den guztion artean.

Pandemiaren erdian sortu zenuten taldea. Horrek asko baldintzatu du zuen jarduna?

Dena atzeratu da apur bat. Konfinamendua baino pare bat aste lehenago eman genuen gure lehen kontzertua. Klaseak bertan behera utzi zituzten egun berean eman genuen gure bigarren kontzertua, Eibarko Gaztetxean. Apur bat arraroa izan zen. Pila bat jende egongo zela esan ziguten, baina jendeak beldurra zeukan eta jende gutxi bertaratu zen. Orduan esaten genuen aferak astebete iraungo zuela, baina gero hainbat kontzertu utzi behar izan genituen bertan behera, pandemiaren erruz. Zaila izan da taldearen haria mantentzea.

Plazaratu dituzuen abestietan estilo jakin bat sumatu daiteke.

Hiru abestiak estilo berberean kokatu ahalko lirateke. Baina, era berean, oso kanta ezberdinak dira kanta zein letra aldetik.

Iazko urtarrilean hasi ginen, Gabonetan. Hiru egun igaro genituen grabaketan murgilduta, hamar ordu egun bakoitzeko, Burubioko Sustraia Records estudioan. Lau kanta egingo genituen, baina bat gerorako uztea erabaki genuen.

Beste estilo batzuk ere jorratzen gabiltza. Nahi duguna egingo dugu.

Baina, baduzue estilo jakin bat: rap kutsuko letrak eta rock doinuak. Ez?

Bai, baina orain punk estiloko bat grabatzen gabiltza, adibidez. Denetarik egiten dugu, baina badugu estilo propio bat sortzeko asmoa.

Grabaketa egunak film baten modukoak izan ziren. Taldean hasi ginenean une horrekin amesten genuen, eta bat-batean estudioan ikusi genuen gure burua, grabatzen.

Ikasketa prozesua ere izango zen, ez?

Noski. Asko dugu oraindik ikasteko. Egunero ikasten dugu zerbait. Oreka bilatzen saiatzen gara guztion ideien artean.

elkarrizketa

Oso begirada zabala dugu. Ez dugu musika berdina entzuten, eta hori oso ondo dago.

Gainera, zortea izan dugu, jendeari gure nahasketa gustatu zaiolako. Sentsazio asko nahastu zaizkigu eta pozik gaude guztiok.

Letrei dagokienez ere esan daiteke abesti guztiek ildo bat jorratzen dutela, ez?

Garaiaren araberakoa da. Une batzuetan gauza batzuei buruz hitz egitea gustatzen zaigu eta beste batzuetan ez. Konfinamenduan letra asko ateratzen ziren, eta orain, lanarekin eta bidaiekin ezin dugu letra askorik egin.

Abesti bakoitza mundu bat da. Batzuetan letretatik abiatzen gara eta beste batzuetan musikatik. Oso modu naturalean ateratzen zaigu, hori da politena. Ez dugu gai bakarrera mugatu nahi. Orain arte abesti lasaiak egin ditugu, baina ez dugu horretara mugatu nahi. Bizi duguna kontatzen dugu.

Abesti gehiago grabatzen zabiltzate.

Bai, Urduñako Konjuntibitis estudioan. Oso gustora gabiltza. Estiloa aldatzen gabiltza. Gure lehen diskoa izango dena osatzen gabiltza.

Orain arte plazaratu ditugun abesti guztiak gazteleraz izan dira. Ordea, orain grabatzen ari garen kantetako bat euskaraz izango da, beste bat euskara eta gazteleraz eta hirugarrena gazteleraz. Aldaketa egiten ari gara letretan, melodikoagoak dira, baina entzuten badituzu jakingo duzu Cuatro Bancosek eginikoak direla. Ez dugu gure esentzia galdu.

Zertan datza esentzia hori?

Nahiko estilo librea da gurea. Baliteke entseatzera etorri eta ordubete igarotzea jo gabe. Denbora gehiago igaro dezakegu musika entzuten musika egiten baino. Lagunak gara, azken finean, lagun-talde moduan funtzionatzen dugu, eta modu horretan lortzen dugu proiektua aurrera ateratzea.

> **“Gure lehen diskoa izango dena prestatzen ari gara uneotan. Aurten argitaratzeko asmoa dugu”**

Guretzat musika bizitza da. Kontzertu bat eskaintzen dugunean bene-benetan bizitzen dugu. Oso une berezia da: denak batera gaude musika egiten... eta lagunak gara. Horretan datza gure esentzia.

Nondik dator ‘Cuatro bancos’ izena?

Amurrioko parkean badago txoko bat lau bankurekin. Hortik dator izena. Hor jaio zen taldearen ideia. Taldearen izena pentsatzean, ingurura begiratu eta lau banku zeudela ikusi genuen, eta izen hori jarri genion proiektuari. Gure geratzeko tokia da.

Aipatu duzue oso musikazaleak zaretela. Nondik edaten du taldeak?

Egon dira talde batzuk, rap eta rock kutsukoak, beti entzun izan ditugunak. La Raiz, Glaukoma, Zoo, Berri Txarrak... askotan entzun ditugu. Bakoitzak bere erreferentziak ditu. Abestiak baino, abestien zati konkretuek deitzen digute arreta. Gainera, ez diegu abesti ezagunenei erreparatzen. Badaude abesti batzuk ez direla ezagunak baina badutela zure buruan “klak” eginarazten dizun pasarte bat.

Pandemia amaitzen ari den une honetan, kontzertuak ematen hasi zarete. Zer asmo duzue 2022ari begira?

Udara begira kontzertu batzuk prestatzen. Gure lehen diskoa atera nahi dugu. Hainbat gauza ditugu esku artean eta nahiko pozik gaude. Ez dugu helburu finkorik. Nahi duguna egiten dugu, gure buruak mugatu gabe. Jotzeko geratzen gara eta datorrena dator.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bidean lagundu gaituzten guztiei, Polli edota Malen Atxari batez ere. Musikarion artean lagundu egin behar gara.

Kontzertu ugari eman dituzte dagoneko Cuatro Bancos taldeko kideek. **Cuatro Bancos eta Laudioko Gaztetxea**

kultura

“Musika urbanoak ez nau guztiz ezaugarritzen”

ANA REBELLATO DEL HOYO (Uruguai, 2001)
DUELA LAU URTE EKIN ZION MUSIKA EKOIZTEARI, NEIFFER IZEN ARTISTIKOAREKIN. HAINBAT PROIEKTU DITU ESKU ARTEAN.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

2018an hasi zinen musika egiten, pandemia aurreko garaietan.

Nire familian beti egon da musika presente. Nire ama piano irakaslea zen. Gitarrarekin hasi nintzen, YouTubeko bideoak ikusita. Hasieran gaizki abesten nuen, ez nuen ahots politik, nolabait esateko. Baina denborarekin hobetzen joan nintzen. Egunero abesten nuen, eta nire burua grabatzen nuen, oso modu autodidaktan.

Nire kuadrillako batekin bildu nintzen eta abesti bat grabatzen hasi ginen, YouTubeko base bat hartuta. Gustuko izan nuen eta aurrera jarraitu genuen. Ondoren, nire kanta propioak osatzeari ekin nion.

Horrela hasi nintzen rapeatzen. Nire neba beti egon da raparen munduan murgilduta, eta bere eragina izan dut. Txikitatik idazten dut, baina raparekin batera hasi nintzen kantak idazten.

Lyrikan ezagutu nuen eta begirada zabaldu zidan. Genero berriak probatzeari ekin nion, musika urbanoaren barruan. Oso prozesu naturala izan zen.

Gaur egun musika ekoizle batek sortzen dizkit instrumentalak eta berarekin grabatu eta editatzen ditut abestiak. Bilboko hainbat ekoizleren musikak baliatu ditut plazaratu ditudan abestietan eta laster plazaratuko ditudanetan.

Plazaratu duzun azken abestian (*Yo&Tu*) aldaketa sumatu daiteke aurrekoekiko.

Unean uneko eraginak izan ditut. Lyrikan eta Aiala Dot izan ditut erreferente, eta baita Bilboko musika urbanoko eszenaren beste artista batzuk ere. Ez dut uste musika urbanoak guztiz ezaugarritzen nauenik. Sustraiak ditut musika latinoan, tangoetan, bulerietan eta txikitan entzuten nituen musika estilo horietan guztietan.

Bitxia da: bi urte igaro ditut musika urbanoa egiten, eta nire sustraietara itzuli naiz orain, hasiera puntura. Unean uneko eraginek eraman ninduten musika urbanora saltoa egitera. Orain, aldiz, musika akustikora itzultzean, nire buruarekin eta sustraiekin egin dut topo berriz.

Musika urbanoaren eta akustikoaren artean topatu duzu zure estiloa, beraz.

Hori da, horretan nago.

Aipatu duzu hainbat kantu dituzula esku artean. Zer asmo dituzu 2022. urterako?

Une honetan garrantzitsua da bideoklipak ere plazaratzea, eta horrek asko luzatzen du prozesua. Bi urte daramatzat nire lan berria grabatzen. Abestika plazaratuko dut, baina álbum bat izango da, kanta guztiek izango dutelako hari bera. Musika urbanoko hainbat estilo jorratuko ditut bertan: trap, dancehall, drilla... une honetan bogan dauden generoak.

Gustuko ditut musika horiek, baina badut oso bestelako lan bat esku artean. Disko kontzeotualagoa izango da. Hainbat gai jorratu nahi ditut, pertsonen figuretan irudikatuta. Sentimenduak (beldurra, poza...) pertsonifikatu nahi ditut letretan. Datorren urtean plazaratu nahiko nuke.

Zure lehenego abestietako letrek rap kutsu handia dute. Zure azken abestiak, aldiz, askoz letra sinpleagoa dauka. Letretan ere emango duzu aldaketa?

Bai. *Yo&Tu* abestiak harreman handiagoa dauka laster plazaratuko ditudan beste abestiekin. Espazio gehiago dago letren artean. Badago mezua, baina ez da horren argia.

Nire konposatzeko modua kasuaren araberakoa da. Ez dut bilatzen, suertatzen zait. Kasu batzuetan, melodia bat gustatzen zait eta horren arabera osatzen dut letra. Baina badut beste abesti bat zeinetan guztiz kontrakoa egin dudan: letra egiten hasi naiz eta gero sartu dut musika. Ez da gauza automatiko bat.

Dena den, egia da azken urteetan egin ditudan abestietan musikatik abiatu naizela. Instrumentala entzun dut lehenbizi, ahotsaren melodia sortu dut gero eta, amaitzeko, letra idatzi dut. Hori da gaur egungo artistek egiten dutena, sortzen dutena natural entzun dadin.

Baina orain dudan dinamika ezberdina da: gitarrarekin konposatzen ari naiz, ekoizle baten laguntzarekin.

Gai personal zein politikoak jorratzen dituzu kantuetan. Unearen arabera eginiko hautua da?

Letrek badute funtzio aldarrikatzailea. *Excéntrica* kantua, adibidez, pertsonala da, baina badu bere zentzua, eragiteko sortua da. Beste letra batzuetan, aldiz, ez ditut gai sozialak jorratzen, baina badute eragiteko asmoa, gai pertsonalak izan arren.

Orain plazaratuko ditudan abestietako batzuk ez dira horren indartsuak, duela bi urte eginikoak direlako. Aldarrikapen personal eta, batzuetan, sozial gisa irudikatzen dut nire musika.

Lyrikan eta Aialarekin hasi zinen musikaren munduan murgiltzen. Beraiek aurreko hamarkadaren hasieran hasi ziren musika ekoizten. Hurrengo belaunaldikoa zara zu. Nola ikusten duzu Aiaraldeko musika eszena uneotan?

Hasieran eragin handia izan zuten nigan. Bilbora jo nuen gero, eragin berrien bila. Artista oso onekin egin dut topo. Emakume talde batean ere nago, . Musika urbanoa egiten dugu eta laster ekingo diogu gauzak plazaratzeari. Eurek ere asko eragin didate.

Horrez gain, nik beti entzun dut musika organikoa: pianoa, gitarra, bateria... zuzeneko musika jotzea dut gogoko. Horiek dira nire eraginak.

Egia da nik inspirazio handia jaso dudala nire inguruan egon diren pertsonetatik. Duela gutxi berriro hasi naiz hitz egiten nirekin batera abesten hasi zen lagunarekin. Animatzen ari da nirekin batera abestera, eta kanta bat sortzen gabiltza elkarrekin. Berak ez du kanpora irten eta jende gehiago ezagutzeko aukerarik izan. Potentzialitate hori duten pertsonek askotan ez dute talentu hori garatzen, euren inguruak laguntzen ez dielako eta baliabiderik ez dutelako.

Pentsatu dut ondo egongo litzatekeela tailer bat egitea, ezinegon artistikoa duten gazteek zaletasun hori garatzeko aukera izan dezaten. Egia da ez dagoela ekimenik.

Laudion badago talentua duen jendea, baina ez dago potentzialitate hori garatzeko baliabide nahikorik. Ni nire garagean hasi nintzen abesten, nire kabuz erosi nuen mikrofono batekin. Gero Lyrikan ezagutu nuen eta berak ireki zikzidan ate asko, baina bera ezagutu izan ez banu baliteke une honetan garagean abesten jarraitzea, edo musika uztea. Asko lagundu zaitzake bultzada bat izateak.

> ***"Laudion badago talentua duen jendea, baina ez dago hori garatzeko baliabide nahikorik"***

Zuzenekoak eskaintzeari ere ekin diozu. Ezberdintasun asko egongo da taula gainean plazaratuko duzunaren eta grabatutakoaren artean?

Bai. In crescendo doan zuzeneko bat prestatzen saiatzen ari naiz. Gitarrarekin hasi nahi dut emanaldia. Bertsioren bat joko dut, giroa berotzeko. Nire abesti propioetara egingo dut salto gero. Ondoren, kitarra albo batean utzi eta intrumentalen gainean abesteari ekingo diot. Abesti lasaiak lehenbizi, indartsuenak amaierarako uzteko.

> ***"Aldarrikapen personal eta, batzuetan, sozial gisa irudikatzen dut nire musika"***

Poesia liburu bat ere osatzen nabil. Aurten argitaratu nahiko nuke. Bilduma bat izango da, olerki andana sortu dudalako idazten hasi nintzenetik.

Musikak balio dit gauzak modu sinple eta zuzenagoan askatzeko. Poesia, aldiz, guztiz kontrakoa da: gauzak modu ez-zuzenean plazaratzeko balio du. Eragitea da nire olerkien xede nagusia, norbait hunkitu ahal izatea.

Kontzertuak eskaintzeari ekin dio Neifferrek, musika akustikoa eta rapa uztartuta. **Neiffer / Aiaraldea.eus**

kultura

Astearte goizean, apirilak 5, egin zuten Jose Arrue margolaria omentzeko egitasmoaren aurkezpena. Margolariaren lau obra ipini dituzte tren geltokiko tunelean, mural formatuan.

Urte osoko egitaraua aurkeztu dute Jose Arrueren heriotzaren 45. urteurrena gogora ekartzeko

Ander Añibarro alkateak eta Felix Mugurutza udal teknikariak aurkeztu dute ekimena. **Laudio Udala**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

45 urte bete ziren apirilaren 5ean Jose Arrue margolaria zendu zenetik. Hori dela eta Laudioko Udalak hainbat egitasmo eta jarduera antolatuko ditu datozen hilabeteetan, margolariaren bizitza eta obra omentzeko.

Asteartean plazaratu zuten lehen ekimena: Arrueren 4 obra mural bilakatu dituzte tren geltokiaren alboko tunelean, "laudioarren zein bisitarien gozamenerako".

Ekimen gehiago

Hori ez da izango egingo duten jarduera bakarra. Beste hainbat ekintza egingo dituzte hemendik eta urte amaierarara.

Esaterako, margolariaren eskultura inauguratuko dute abenduaren 13an Alberto Acero plazan. Aurreratu dutenez, Lourdes Umerez artista arduratuko da lana egiteaz. Bera arduratu zen Lamuza plazan dagoen Ruperto Urkijoren eskultura egiteaz.

Margo erakusketa ere antolatuko dute, aste batzuk lehenago. Bertan ikusi ahalko dira artistaren lan nagusietako batzuk, eta hitzaldiak ere eskainiko dituzte, artistaren "itzal unibertsalari" buruz hitz egiteko.

Artistari buruzko material pedagogikoa ere sortuko dute, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei bideratutakoa. “Ekintza hori osatzeko, umeentzako ikuskizun bat eskainiko da, artista kutunarekiko eta haren obrarekiko keinuz josia. Gainera, haren obrak landu ahalko dituzte txikienek haientzat pentsatutako tailerretan”. Horrez gain, Jose Arrue Laudioko seme kutun izendatzea proposatuko dute azaroko Udal Osoko Bilkuran. “Udalek euren biztanleei eman diezaieketen ohore gorena da hori, eta, definizioz, tituluaematen duen udalerrian jaio gabe ere, merituengatik, gaitasunengatik edo herriaren alde eta ohorez emandako zerbitzuengatik nabarmenki gailendu diren eta esparru publikoan aintzatespen orokorra lortu duten pertsonei baino ez zaie ematen”. Bukatzeko, beste proiektu bat egikaritzen ere saiatuko dira: Arrueren obretako bat hezur-haragitzea, Laudioko bizilagunen parte hartzearekin. Orozkon 2017an egin zuten hori, margolaria omentzeko dinamikaren barruan. Arrue Bilbonjaiozen, baina Laudionigaro zituen bere 37urteak. Gauzak hala, bere obra esanguratsuenetako batzuk Laudion edota Orozkon girotuak daude.

Arrueren 4 obra mural bilakatu dituzte tren geltokiaren alboko tunelean. **Laudio Udala**

Apirilaren 22tik 30era luzatuko dira Aiarako jaiak, bi urteko etenaldiaren ostean

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Bi urteko etenaldiaren ostean bueltan dira Aiarako jaiak berriro ere. Apirilaren 22tik maiatzaren 1era bitarte, bi asteburuz luzatuko da festa, eta egitarau zabala prestatu dute herria girotzeko.

Ohi bezala Arespalditza izango da festen epizentroa.

Apirilaren 22an txupinazoarekin batera lehertuko dira jaiak Aiaran. Aurretik eraso sexisten aurkako espazioa irekiko dute, eta zabalik mantenduko dute festak iraun bitartean erasoak salatzeko.

19:30tatik aurrera, gaueko ordu txikiak arte, Fanfarre Beti Jai, Luhartz eta Oihan Vega arduratuko dira herria girotzeaz. Aurretik, Aiara Dantza Taldeko kideek ikuskizuna eskainiko dute.

Apirilaren 23a -larunbata- izango da egun handia. Goizean goiz Arabako txakur erakusketaren Open-a egingo dute. Kirol egitarau zabala izango da egun horretakoa: 11:00etan Duatloi Txiki egingo dute eta 16:30ean Txirrindularitza Sari Nagusian kadete mailako kirolariak lehiatuko dira.

Pertsona nagusiek 13:00etan izango dute hitzordua Nafarroako jota talde batek girotutako XXX. agureen lunch-ean.

Iluntzean Xaibor, Akerbeltz erromeriak eta DJ Markelinek hartuko diete lekukoa aurreko eguneko musikariei, 18:30etatik aurrera.

Igandean beriz, Arespalditza-Izoria-Arespalditza ibilbide morea eta emakumezkoen herri-kirol erakusketa izango dira egitarauko protagonistak. Patxi Perezek dantzaplaza gidatuko du 19:30ean eta 20:00etan odolosteak banatuko dituzte.

Bigarren asteburua

Egitarauak hurrengo astean izango du segida. Apirilaren 27an boloen jaurtitzea egingo dute Kexaako bolatokian, goizez zein arratsaldez.

San Prudentzio egunean artisau produktuen azoka egingo dute, eta mezaren ostean Izalde koralak kontzertua eskainiko du. Eguerdian danborrada egingo dute Etxaurren Ikastolako haurrek. Arratsaldean Luiandoko frontoian pilota partidak egingo dituzte, eta egunari amaiera emateko, Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du.

Jaietako egitaraua apirilaren 30ean itxiko dute, Lantenoko eskoletan. Bertan, Idoia Mielgok eta Jose Luis Urrutiak ikuskizuna eskainiko dute: *Cuando la novela seduce a la poesia y viceversa.*

Autobus zerbitzua

Aiarako Udalak autobus zerbitzua jarriko du Aiaraldeko herritarrak Aiarako jaietara bertaratu daitezen. Artziniegatik eta Laudiotik autobus bana aterako da ostiral eta larunbat arratsaldean.

Artziniegakoa 20:30etan abiatuko da bi egunetan, eta Lantenon (20:40), Menagarain (20:45) eta Ibaguenen (20:55) egingo ditu geldialdiak. Itzulera goizaldeko 4:00etan egingo du Arespalditzako bus geltokitik, eta herri berdinetan geratuko da.

Laudiotik abiatzen den busa 21:20etan aterako da Institututik ostiral zein larunbatean. Autobusa Luiaondon (21:30), Amurrion (21:40) eta Murgan (22:50) geratuko da Arespalditzara iritsi aurretik. Bueltako busak geldialdi berdinak egingo ditu, eta goizaldeko 5:00etan abiatuko da Arespalditzatik.

Montse Angulo kultura zinegotziak nabarmendu du "oraindik oisasun-egoera guztiz normala ez den arren, Aiarako jaietaz gozatzeko aukera egongo dela". Zentzu horretan eskerrak eman nahi izan dizkie jaiak antolatzen aritu diren Aiarako elkarte eta norbanako guztiei.

Lore More antzerki taldeak 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren barruan egindako obra aurkeztu zuen Artziniegan

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Udalbiltzak sustatutako 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren barruko bigarren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten iragan martxoaren 26an Artziniegan. Lore More antzerki taldeak Trapu Zikinak antzezlana aurkeztu zuen Artziniegako Museo Etnografikoan. Arropan dauden orbanen inguruan hausnartzen du obrak, bai eta horrek gizartean duen eraginaren inguruan ere, orban horiek garbitzen dituztenak erdigunean jarriz.

Geuretik Sortuak

Iragan ikasturtean jarri zuen abian Udalbiltzak 'Geuretik Sortuak' egitasmoa. Guztira, Euskal Herriko 25 udalerritan garatu dute ekimena: sortzaileek 2-3 asteko egonaldiak egin dituzte udalerri bakoitzean eta pieza artistiko bana sortu dute.

Ugaitz Agirre usurbildarra izan zen Artziniegan egonaldia egin zuen sortzailea. Idazleak herrian oinarritutako ipuin bat sortu du. Aurreratu dutenez, maiatzean egingo dute testuaren aurkezpena, Artziniegan bertan.

Udaberria FAKTORIAN

www.faktoria.eus
faktoria@aiaraldea.eus
688 647 942
Errotari kalea 4-8
Laudio (Araba)

IKUSKIZUNAK

Apirilak 22, barikua, 20:30ean

MIKEL URDANGARIN

Mikel Urdangarinek 25 urte daramatza musikagintzan. Gehienetan melodiak eta letrak sortzen ditu bere abestietarako; zenbaitetan beste idazle ezagun eta lagunak dira hitzak maileguan idazten dizkiotenak.
Bakarlari bezala eskainiko du kontzertua Faktorian, kantautore zornoztarraren errepertorioaz beste modu batean gozatzeko aukera eman eta esperientzia berezi bihurtuz.

Bazkideak 10€ // Ez-bazkideak 12€

Apirilak 10, domeka, 17:30ean

IRRIEN LAGUNAK: elkartasun jantokia

Largabista eta Tiritatxo janaria prestatzen ari dira, ondoren Martinberrek elkartasun jantokira eraman dezan. Tarteka, norbaitek jakiren bat lapurtzen die. Hasieran, Irrien Lagunak ez dira konturako, baina bat- batean, Martinbertsok tranpa txiki baten bidez lapurra harrapatuko du. Nor ote da?

Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€

Apirilak 26, martitzena, 17:15ean

PORROTX ETA MARIMOTOTS: zorionak MariMotots!

Bazkideak 8,5€ // Ez-bazkideak 10€

IKUSKIZUN BEREZIAK

Apirilak 24, domeka, 13:00etan
Urduñako Foru Plazan

"NOIZ UTZIKO DIO EURIA EGITEARI" Paseo turistiko dramatikoa

2071 da. Covidaren Omega aldaeraren ondorioz 2021etik 2031ra iraun zuen hamar urteko konfinamendu zorrotzaren ondoren, euria egiteari ekin zion, egun bakar batean ere gelditu gabe. Oso bestelako gizarte batean bizi gara orain eta, bidea birkalkulatzen duten GPSen antzera, gure helmugak birkokatzeko unea iritsi da. Zein bideri jarraitu nahi diogu orain? Euria egiteari utziko al dio norabidea aldatzen badugu?

Bazkideak 5€ // Ez-bazkideak 6€

Apirilak 24, domeka, 18:00etan, *Faktorian*

"NOIZ UTZIKO DIO EURIA EGITEARI" Performance zinematografikoa + solasaldia

Fikzioaren eta dokumentalaren mugan bizi den sormen-lan bat da, performance zinematografiko bat, izen bera duen Piszifaktoria Ideien Laborategiaren paseo turistiko dramatikoan oinarritua.

2071 da. Covidaren Omega aldaeraren ondorioz 2021etik 2031ra iraun zuen hamar urteko konfinamendu zorrotzaren ondoren, euria egiteari ekin zion, egun bakar batean ere gelditu gabe. Oso bestelako gizarte batean bizi gara orain eta, bidea birkalkulatzen duten GPSen antzera, gure helmugak birkokatzeko unea iritsi da. Zein bideri jarraitu nahi diogu orain? Euria egiteari utziko al dio norabidea aldatzen badugu?

Bazkideak 3€ // Ez-bazkideak 5€

KOKORIKO JARDUERAK

Apirilak 24, domeka, 11:00etatik 13:00etara

0-3 URTE ESPAZIO ASKEA

Mugimendu autonomorako eta jolas librerako espazio zaindua. Profesional baten laguntzarekin behaketan jarriko dugu ikuspuntua. Familian gozatzeko espazioa, besie familiekin elkargunea. Orgutegia malgua da.

Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€

UDABERRIKO OPORRAK

Apirilaren 11tik 13ra eta apirilaren 19tik 22ra, 09:00etatik 13:00etara

ZIENTZIAZ UDABERRIARI KAIXO

Faktoria laborategi bihurtuko da! Gure mundua deskibrizeko beste modu bat. Zientzia deskubritu eta gozatzeko espazio askea. Gurekin jolastu nahi?

2012-2019 urte bitartean jaitotako haurrak.

Lehenengo txanda (11tik-13ra): Bazkideak 40€ // Ez-bazkideak 50€
Bigarren txanda (19tik-22ra): Bazkideak 50€ // Ez-bazkideak 60€

*** Egun guztientzako prezioa: Bazkideak 60€ // Ez-bazkideak 70€**

HEZKUNTZA ATELIERRAK

Astelehenero, 17:30ean eta 18:30ean

ESKULANAK

Faktoriako bazkideek 24€/hilean
Ez bazkideek 32€/hilean

Martitzenero, HH 17:30ean eta LH 18:30ean

PSIKOMUGIDURA

Faktoriako bazkideek 24€/hilean
Ez bazkideek 32€/hilean

Eguaztenero, HH 17:30ean eta LH 18:30ean

IRAKURLE KLUBA

Faktoriako bazkideek 24€/hilean
Ez bazkideek 32€/hilean

Astelehenero LH *eta eguenero* HH , 17:30ean

SUKALDARITZA

Faktoriako bazkideek 24€/hilean
Ez bazkideek 32€/hilean

MUSIKA · ANTZERKIA · IKUSKIZUNAK · FAMILIA · UMOREA · BAKARRIZKETA · FEMINISMOA · SORKUNTZA · ELIKADURABURUJABETZA · OPORRAK · BERBALDIAK · JOLASA · SUKALDARITZA · ESKULANAK · TAILERRA · GAZTEAK · KAZETARITZA · ZINEMA · HEZKUNTZA

EKONOMATUA

Astelehenetik barikura **11:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00**
Zapatuetan **10:30 - 14:00**
722 846 762 ekonomatua@aiaraldea.eus

KANTINA

Ekonomatua irekita dagoen ordutegian eta Kultur emanaldiak dauden guztietan irekita egongo da
722 846 762 kantina@aiaraldea.eus

kirola

“Euskadiko Selekzioko kideek jokalari hobea bilakatu naute, zukutzen bainaute”

AIORA ALONSO (Amurrio, 2010) GAZTEAK ASTE SANTUAN HITZORDU GARRANTZITSUA IZANGO DU, ESPAINIAKO SASKIBALOI TXAPELKETAN ARITUKO BAITA EUSKADIKO SELEKZIOAREKIN.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskadiko Selekzioak hautatu zaitu, zein izan da prozesua?

Iaz aurrehautatua izan nintzen, udan. Zarautzen elkartu ginen 40 jokalari, baina maila altua zenez, ez nuen uste berriro deituko zidatenik.

Ordea, gehiagotan deitu naute eta teknifikazio saioak egiten ditut Eibarren edota Leioan. Berez, aurrehautaketa horretan 25 izan ginen deituak gero, 18 hurrengo deialdian, 14 geroago eta, azkenik, 12.

Bakarrik entrenatu duzu Euskadiko Selekzioarekin edo partidaren bat jokatu duzu?

Bai, Galizian jokatu genuen txapelketa bat duela gutxi. Esperientzia oso ona izan zen, baina gure aurkariak oso onak ziren. Jokatu genituen hiru partida eta hirurak galdu genituen Galizia, Asturias eta Gaztela eta Leongo taldeen kontra.

Nola hartu duzu behin betiko hautaketa?

Oso pozik nago eta taldekideak oso jatorrak dira. Ez nituen ezagutzen aurretik. Arabako bi daude eta pasa den asteburuan jokatu nuen euren aurka.

> **“Araba taldeak proposatu zidan Gasteizera joatea jokatzera, baina nik Zaraobe Saskibaloi Taldean geratzea erabaki dut”**

Zure postua kantxan zein da?

Pivota naiz. Garaia naiz eta korrika azkar egiten dut.

Zenbat urte bete dituzu jolasten?

Gutxi gorabehera sei urte, beti egon naiz Zaraobe Saskibaloi Taldean.

Zeintzuk dira zure helburuak, behin hautatua izanda?

Espainiako Txapelketa irabaztea eta hobetzea jokalari moduan. Espainiako Txapelketa, berez, Aste Santuan izango da, apirilean. Cadizen jokatuko da. Zaila izango da, baina uste dut ondo pasako dudala. Gaztela La Mancha eta Extremadura izango ditugu aurkari eta, egia esanda, ez daukagu erreferentziarik.

Jadanik nabaritu duzu hobetu duzula?

Bai, kideak hobeagoak dira eta gehiago zukutzen naute. Astean bi egunez entrenatzen dut Amurrion, larunbatetan partida jokatzen dut eta igandetan teknifikazio saioak dira selekzioarekin.

Saio horietan, goizetan, jokaldiak prestatzen ditugu eta arratsaldetan jokatzen ditugu partidak.

Zaraobe Saskibaloi Taldearekin helburuak zehaztu dituzu?

Ez, txapelketako lehenengo fasean gaude eta aitortu beharra dago gure aurkariek maila handiagoa dutela.

Pentsatu duzu zer nolako harremana izan nahi duzun saskibaloiarekin?

Pentsatu nuen Gasteizera joatea jokatzera, hango klub batekin, baina hobeto baloratu dut eta Amurrion geratuko naiz. Araba taldeak proposatu zidan, baina astean hirutan joatea Gasteizera eta ikastea ganoraz ez zitzaidan iruditzen bideragarria.

kirola

TXIRRINDULARITZA

Denboraldi berriari ekiteko prest dira Amurrio Txirrindulari Elkarteko kideak

Amurrio Antzokian egin zuten aurkezpen ekitaldia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ziklokros denboraldia agurtu ostean, denboraldi berriari ongi etorria eman zioten martxo aren 26am Amurrio Txirrindulari Elkarteko kideek, Amurrio Antzokian egin zuten aurkezpen ekitaldian.

Denboraldi berezi bezain gogorra izan dela nabarmendu zuten elkarteko kideek martxoaren 25eko ekitaldian. Izan ere COVID-19aren pandemiak zeharo baldintzatu ditu lasterketak eta txapelketen egutegia. Jarraian, 2021eko denboraldiak utzitako une gogoangarrienen argazki pasea egin zuten. Amurrio TE-k eskerrak eman nahi zian zizkien taldeko babesle diren enpresa eta komertzioei.

Denboraldi berri honetan Amurrio Txirrindulari Elkarteko koloreak jantziko dituzten kirolari gazteak izan ziren, ordea, ekitaldiko protagonista nagusiak. Mailaz baila eta banan banan oholtza gainera igo ziren taldekide guztiak eta familia argazkia atera zuten bertan. 2022ko denboraldiko hitzordu garrantzitsuenak ere birpasatu zituzten.

ALPINISMOA

Tasio Martinek jasoko du Mendiko Lagunak Beka, Himalaian espedizio berri bat egiteko

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Amurrioko Mendiko Lagunak elkarteak aurtengo bekaren irabazlea jakinarazi du: Tasio Martin. Hain zuzen, 'Zanskar' izeneko espedizioa egingo du 2022ko udan. "2022ko 'mlbeka' Tasio Martin urduñar eskalatzaile eta alpinistarentzat izan da", zehaztu du eragileak sare sozialetan. Ildo beretik, abenturarako zorte onena opatu diote: "Uda honetan Indiako Himalaian egiten saiatuko diren proiektuetan zorterik onena opa diogu berari eta bere taldeari". Lleidan (Herrialde Katalanak) bizi da duela 2-3 urtetik Tasio Martin urduñarra, baina ez du eskualdearekiko lotura galdu.

Udan joango da Indiara, Himalaiako Zanskar haranera esplorazio-alpinismoa egitera. Hala zehaztu du beka jasotzeko osatutako laburpenean. Mendiko Lagunak bekaren bitartez 600 euroko laguntza ekonomikoa izango du Tasio Martinek. 2023ko beka deialdia, udazkenean irekiko dute.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Apirilaren 9an egingo dute Gimnasia erritmikoko XIII. Aresketa Torneoa

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Eskola kirol mailako lehiaketa antolatuko du Aresketa Gimnasia Erritmiko taldeak Bañueta kiroldegian aurki. Hilabete hasiera zabaldu zuten berria, eta hitzordua aurkeztu dute jada: apirilaren 9an izango da herriko lehiaketa. Bi urteko etenaldia izan du norgehiagokak, koronabirusak eragindako pandemiaren ondorioz. "Inoiz baino gogo gehiagorekin itzuliko gara", adierazi dute sare sozialetan. Hain zuzen, Amateur kategoriako kideak, federatuak eta Eskola Kirolekoak lehiatuko dira. Izen ematea zabalik dago, "baina plaza kopuru gutxi daude". Interesdunek klubarekin jarri beharko dute harremanetan.

"Inoiz baino gogo gehiagorekin itzuliko gara", adierazi dute Gimnasia taldekoek sare sozialetan

herriko plaza

Uztai

ZORIONAK, mediku jauna, ea noiz bisitatzen duzun zure herria! Zain gaudee, ospatzeko!

Lagunak

Alaitz

Zorionak Alaitz! Maite zaitugu! Muxu erraldoi bat etxekoen partez!

Miguel eta Maite

Mari

Zorionak Mari, 92 urte eta beti bezain ondo!

Zure familia

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Apirilaren 27an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	1	4	5		2	9		
5	7	9		4		2		8
	2					5		
		2	3					
		8		2	9	3		
				8				
		1	8					3
				3	4	8	7	
			6		7	4		

ZAILA

	4	8	2	7		3		
		3	5					
5		7		8			6	4
4							7	3
6	3		8					
2				3		8	9	
						6	5	
					2	7	4	8
		4		6				2

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Irrien Lagunek Faktorian eskainiko duten ikuskizunaz gozateko sarrera bikoitza zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Irrien Lagunek Faktorian eskainiko duten ikuskizunaz gozatzeko zozketa
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** apirilak 8, 12:00etan.

KOKORIKO

BALIABIDE GUNEA

DOROTEA

Egilea: Amaia Egidazu
Argitaletxea: Pamiela
Adina: 3 urtetik aurrera
Ilustrazioekin eta testuekin irakurtzeko ipuin interesgarria da. Amatxi agertzen da, egunerokotasuneko egoerei aurre egiten. Tradizioa eta modernitatea, natura, kultura... jasotzen dituen ipuin ilustratu bikaina. Errimekin jolastu egiten du idazleak eta beraz erraza irakurtzeko eta gozatzeko.

FESTA

Egilea: Jasone Osoro
Argitaletxea: Elkar
Adina: 14 urtetatik gora
Gazteak erraz harrapatu ditzakeen istorioa kontratzen digu idazleak. Festa batera doazen bi lagun, inguruko jairik onenera. Bertan protagontsitetako batek ligatu egiten du eta sexu harremanak izan. Ahurdun geratzen da.

JOLAS GUNEA

LALASTRAKO PARKEA

LEKUA: Gaubea (Araba)

AZALPENA: Valderejoko parke naturalean kokatzen den parkea da. Haurrentzako hainbat aukera eskaintzen ditu gune natural batean.
Zerbitzu ezberdinak ditu, iturria, komuna... beraz, eguna pasatzeko aukera ematen duen gune bat da.
Ez dauka berezitasun handirik baina ingurune naturalak jolaserako aukera ugari eskaintzen ditu.

UDABERRIAN GOZATU

Udaberriko oporraldiak datoz, eta gozatu dezagu denak elkarrekin zientziarekin.

Oporraldian jolasteko eta esperimentatzeko tartea izango dute haurrek.

Zientziaren laguntzaz mundua ezagutzeko aukera izango dute haurrek. Ondo pasaz galdera ezberdinei erantzuna topatzen saiatuko dira.

LEKUA: Faktoria (Laudio)
ORDUA: 9:00-13:00
IZEN EMATEA: www.labur.eus/zientziafaktoria2022

KOKORIKO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Korrika

Euskararen lekukoa eskuz esku ari da egun hauetan. Gure eskualdean, Amurrion, ekin zion bideari Euskal Herri osoa zeharkatuz Donostira heldu arte. Lekukoa eskuz esku doa eta euskara ahoz aho ere joan beharko litzateke, hau ordea oraindik ez da lortu.

Zer eta nola egin daiteke haur eta gazteek euskaraz egin dezaten? Euskal Herriko eragile, familia eta eskolek bolo bolo darabilten galdera da eta oraindik ez ditugu hitz magikoak topatu hau lortzeko.

Euskara maitatuz gero erabiliko da, beraz, lehendabiziko kontua sentsibilizazioa izan behar du. Maitatzeko ordea derrigortzea, sariak eta zigorrak erabiltzea... ez da modurik egokiena. Derrigortuz gero edo zigortuz gero ukatu egingo da hizkuntza eta sariak ematen sariengatik egingo da eta ez maitasunagatik.

Euskaraz bizitzeko ahalegina egunerokoa izan behar du, pendiente egon behar da egunero eta bide ezberdinak jorratu. Heldu bezala argi dagoena da ez dugula lortuko gure inguruko haurrek euskaraz egitea beraien erreferenteek (gurasoek, tutoreek...) euskaraz jakinda erabiltzen ez badute.

Norberatik hasita, bihotzean hazia jarri, ureztatu korrikarekin, euskararen aldeko jaiekin... eta handitzen joan dadila gure ahoetan loratu arte.

Haurrekin ere hazia jarri euskaraz kontsumituz, euskarazko ikuskizunetara joanez... ureztatu maitasunetik eta kontzientziatik dauden milaka moduak erabiliz (errepikapenekin, euskaraz egin esanez, berarekin hitz eginez...) eta azkenean loratuko da.

Euskararen lekukoa eskuz esku igarotzen ari da 10 egun hauetan, ea beste 355 egunetan ahoz aho darabilgun.

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA

Hara!

Gaixoak pinguinoak! Laster beren bizimodua egokitu beharko dute, Lurraren tenperatura igotzen ari baita. Beno, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 16 dira guztira.





Dominoan



Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.





Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura

AINHOA GARAYO
JAIOTERRIA
LAUDIO (1998)

BIZILEKUA
THAILANDIA

BIDAIAREN ZERGATIA
THAILANDIA ETA INGURUKO HERRIALDEETATIK PATXADAZ BIDAIATZEA

"2018an 10 egun egin nituen bertan, eta ordutik Thailandiaz maiteminduta nago"

Zergatik erabaki zenuen Thailandiara bidaiatzea?

2018-an nire ikasketen harira Asiara etorri nintzen hilabete batzuk igarotzera. Hauetako batean, 10 egun libre nituela, Thailandiara jauzi egin nuen eta ordutik maiteminduta nago herrialde honekin. Etxean bueltan nengoela zin egin nion nire buruari aitzakia bat bilatu behar nuela hona bueltatzeko. Esan eta egin, COVIDaren kontrako neurriak baretu zirenean Euskal Herriko bizitza utzi eta urte baterako motxila egin nuen, hurrengo hilabeteetan Tailandia eta inguruko herrialdeak patxadaz bizitzeko ideiarekin. Orain bi hilabete daramatzat bidaiatzen Thailandiatik.

Aurretik egona zara, aldaketarik sumatu duzu?

Aurrekoan Thailandia, India eta Txinan egon nintzen. Oraingoan Thailandia desberdin bat aurkitu dudala esango nuke, ez bakarrik COVIDaren kontuak eragin duen egoera berriarekin, bidaia motz-bat izatetik zehaztu gabeko bidai bat izatera salto egitean perspektiba ere aldatzen da, oraingoan bisitatzen ditudan lekuak detailez ikusi nahi ditut, bertako jendearekin harremana izan, disfrutatzeko denbora hartu.

Asiako beste herrialderen bat bisitatzeko asmoa duzu oraingoan?

Apirilaren amaieran Vietnamera noa, printzipioz pare bat hilabeterako, baina oraindik bisaren kontuarekin borrokan nago. Azkenengo asteetan aldaketa asko egon dira sartzeko eskakizunei dagonionez, neurriak asko leundu dira, eta horrek herrialdez herrialde joateko aukera ireki du berriro. Herrialdera iritsi nintzenean, urtarrilaren amaieran, Thailandiak aurretiazko PCR-az aparte heldu berri beste proba bat egitea eskatzen zuen, eta honen emaitza heldu arte itxialdia.

Iritsi eta 5 egunera ere hirugarren proba bat egin behar izan nuen. Orain aldiz herrialde gehienek aurretiazko froga eskatzen dute bakarrik, eta horrek papeleo kontua errezteaz gainera, dirua aurreztea ere bada

Gizarte oso desberdin batekin egingo zenuen topo bidaian.

Asko harritzen eta gustatzen zaidan kontu bat, gauetan dagoen bizitza da. Thailandiarrek egunez ordu luzez egiten dute lan, baina gau partean (17:30etik aurrera) jendea kalera eta merkatuerara ateratzen da. Kaleak jendez betetzen dira. Gaueko merkatuek betetzen dituzte kaleak, jateko eta edateko produktu askorekin. Kuriosoa da ere motorren kontua, denetarik ikus dezakezu, 8 urteko umeak gidatzen, 5 pertsona motor berdinean... edozer! Eta ez hori bakarrik, gehienek kaskoa baino maskarilla jartzen dute! Nik nahiago buruko kolpea ekidin!

Noiz duzu Aiaraldera bueltatzeko asmoa?

Hilabete bateko prebisioarekin ibiltzen naiz gehienetan, hortik aurrera ideia desberdinak ditut, baina egoerak, gogoak eta diruak zehaztuko du nora joan eta noiz itzuli. Printzipioz urte amaierarako bueltan egongo naizela uste dut, baina auskalo. Bi hilabete kanpoan daramadan arren oraindik bidaiaren hasieran nagoela sentitzen dut, Euskal Herrira bueltatzeko gogo handia daukat, etxeko janari goxoa, lagunak eta familiarekin egoteko baina oraindik gauza asko ditut ikusteko hemendik.

THAILANDIA

DESKRIBAPENA
Hego-ekialdeko Asiako estatu burujabea da, eta Indotxinako penintsulan kokatua dago, Laos, Kanbodia, Myanmar eta Malasia artean. Urte luzez Siam Erresuma bezala ezagutu izan da, harik eta 1949an izena behin betiko aldatu zioten arte. Bangok du hiriburu eta hiririk garrantsitzuena.

AZALERA
513.115 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
65,93 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Thailandiera da hizkuntza ofiziala.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · ausolan · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio · G! Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco Kultura eta Hizkuntza Politika Saila